



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abuztuaren 5a

85. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |   |   |
|---|---|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Nafarroako Enplegu Zerbitzua (3. or.).</p> <p><b>III.</b> Helburua, norainokoa eta mugak (5. or.).</p> <p><b>IV.</b> Ondorioak eta gomendio orokorrak (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Aurrekontu-betetzeari buruz (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Indarreko araudira egokitzeari buruz (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. UG Tk, CCOOk eta CENek 2008tik jasotako diru-laguntzei buruz (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Eraginkortasuna, eragimena eta ekonomia (9. or.).</p> <p><b>V.</b> Iruzkinak (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontu-betetzeari buruz (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Langileria (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Ondasun eta zerbitzuen erosketak (11. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.4. Transferentzia arruntak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.1 Enplegurako lanbide-heziketa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.2. Tailer-eskolak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.3. Gizarte-intereseko obren kontratazioak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.4. Enplegu-zentro bereziak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.5. Krisiaren aurkako neurriak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">V.4.6. INAFRE hitzarmena (19. or.).</p> <p><b>V.5.</b> Inbertsioak (20. or.).</p> <p><b>V.6.</b> Kapital-transferentziak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6.1. Autonomoentzako diru-laguntzak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6.2. Enplegu-zentro berezientzako eta enplegua sortu eta mantentzeko diru-laguntza (22. or.).</p> <p><b>V.7.</b> Diru-sarrerak (22. or.).</p> <p><b>V.8.</b> Programako gastuen eta diru-sarreraren arteko erlazioa (23. or.).</p> <p><b>V.9.</b> "Ordezkaritasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeak" adierazpenaren gainean egin behar den interpretazioaren legezko alderdiak. (25. or.).</p> <p><b>VI.</b> UG Tk, CCOOk eta CENek 2008tik Nafarroako aurrekontuetatik jasotako funtsak (26. or.).</p> <p><b>VII</b> Azterketa operatiboa (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">1. eranskina. Aurrekontu-programen adierazleen bilakaera (32. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II. eranskina. Enplegu Planari buruzko txostena (36. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III. eranskina. Langabeentzako prestakuntza-ikastaroak (38. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV. eranskina. INAFREkiko 2010eko hitzarmena. Ikerketa proiektuak eta azterlanak. (39. or.).</p> |
|---|---|

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (40. or.).

Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (42. or.).

## I. SARRERA

2011ko abenduan, Nafarroako Kontuen Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ) erakunde autonomoari buruzko fiskalizazio-lana sartu zuen bere jarduera-planean.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2011ko azaroaren 28an eta abenduaren 12an egindako bileretan, Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek eskatuta, fiskalizazio-txostena bidaltzeko eskatu zuen, "CENek, UGTk eta CCOOk azken urteetan (2008az geroztik) Enplegu Planaren esparruan egindako jarduera nagusiak aztertzeko, ordaindutako gastuak beharrezko kostu zuzenekin benetan bat datozela bermatze aldera Nafarroako Gobernuak ezarri dituen mekanismoak egiaztatzeko eta horien eraginkortasunari buruzko iritzia emateko", lehenengo kasuan, eta, bigarrenik, "2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n UGTk, CCOOk eta CENek diru publikoarekin egindako proiektu, jarduera eta programak aztertzeko eta eska daitezkeen emaitzekin bat datozen ikusteko, baita kontu publikoetarako duten iraunkortasun eta eraginkortasunari buruzko iritzia emateko ere".

Lana auditore batek eta auditoriako hiru teknikaririk osatutako taldeak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Landa-lana abenduan hasi zen eta martxora arte luzatu zen.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenian Nafarroako Enplegu Zerbitzua zer den azaltzen da labur-labur. Hirugarrenean txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak jasotzen dira. Laugarrenak txostenaren ondorio nagusiak aurkezten ditu. Bosgarrenean ondorio horiek hedatzen dira, aztertutako atalei buruzko oharrek eginez: Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gastu eta diru-sarreraren arteko erlazioa, aurrekontu-betetzea eta gastu eta diru-sarreraren kapituluak, eta azken azpiatalean "ordezkaritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeei" buruzko legezko alderdiak aztertzen dira. Seigarren atalean Parlamentuaren eskaera aztertzen da, eta azken atalean Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardueraren eraginkortasunari, eragimenari eta ekonomiari buruzko hainbat alderdi jorratzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Enplegu Zerbitzuko eta Lehendakartzako, Administrazio

Publikoetako eta Barneko Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman duten laguntzagatik.

## II. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Nafarroako Gobernuak 1998an eratu zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Estatuak autonomia erkidegoei eskualdatutako enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboak kudeatzeko. Eskumenak eskualdatu ondoren, Estatuak politika "pasiboak" kudeatzen ditu (langabeziagatiko prestazioak) eta autonomia erkidegoek enplegu-politika "aktiboak" kudeatzen dituzte enplegu-zerbitzu publiko autonomikoen bidez. Horiek guztiek osatzen dute enplegu-zerbitzu publikoen eta Enplegu Sistema Nazionalaren multzoa, eta eskumen desberdinak izan arren, elkarrekin koordinaturik lan egiten dute herritarrei zerbitzua emateko orduan.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua apirilaren 29ko 148/1998 Foru Dekretuaren bidez sortutako erakunde autonomoa da. Zerbitzuaren estatutuak hainbat aldiz aldatu dira, azkena martxoaren 14ko 15/2012 Foru Dekretuaren bidez.

Dekretu horietan ezarritakoari jarraiki, honako eginkizunak ditu: Foru Komunitateko Administrazioari egotzitako eskumenak betetzea, gizarte-eragileekin adostutako enplegu-politikak planifikatu, beteazazi eta kontrolatzeari dagokionez. Horretarako, enpleguaren sustapenarekin, lan-merkatura sartzeko aukera-berdintasunarekin, laneratzearrekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin eta prestakuntzarekin nahiz Nafarroan enpleguaren egoeraren eta politiken azterketarekin lotuta ezartzen diren zerbitzu eta programak era koordinatuan kudeatzen dira.

Aurreko lerrokadan deskribatutako eskumen-eremua garatzeko, zehazki, honako funtzioak bete behar ditu:

- Kontratazioa erraztu eta sustatzen duten programak egin eta proposatzea.
- Foru Komunitatean enplegurako lanbide-heziketa kudeatu, planifikatu eta koordinatzea.
- Enplegurako lanbide-heziketa programen bidez prestakuntza profesionala sustatzea.
- Lan-merkatuaren eskaintza eta eskariaren bitartekaritzan era aktiboan parte hartzea.
- Gainerako eginkizunen euskarri tekniko gisa enplegu-behatoki dinamiko ezartzea.
- Laneratzea lortzeko lanbide-orientazioko zerbitzuak indartzea.
- Foru Komunitatean ordezkariatasun handiena duten gizarte-eragileekin adostasunaren eta parte-hartzearen bidez hitzartutako enplegu-politika akti-

boak zehazten dituzten ekintza, plan edo programak planifikatu, egin, onartu eta jarraitzea.

- Enplegu-politika aktiboen arloko Estatuko nahiz Foru Komunitateko programak kudeatzea.

- Erakunde pribatu eta publikoen ekimena sustatzea, enplegua bultzatuko duten neurriak hartzeko.

- Kolektibo behartsuen edo bazterkeria-arriskuan daudenen enplegua sustatzea.

- Lan-merkatura sartzeko orduan aukera-berdintasuna errazten duten politika aktiboak bultzatzea.

- Enpleguaren kudeaketa hobea eta sustapena ahalbidetu ditzakeen beste edozein eginkizun.

Gobernu Kontseiluak, Batzorde Iraunkorrak eta zuzendari kudeatzaileak osatzen dituzte zuzendaritza-organoak.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu Kontseiluan hiru alderdiren ordezkariak biltzen dira. Honakoak dira:

a) Administrazioaren ordezkariak:

- Lehendakaria: lanaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria.

- Lehendakariordea: lanaren arloko eskumena duen zuzendari nagusia, kontseilariaren ordezkaria izanen dena azken hori ez badago.

- Kidea: industria gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.

- Kidea: ekonomia gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.

- Idazkaria: Laguntza Tekniko eta Administrazioaren Zerbitzuko zuzendaria.

b) Sindikatu-erakundeak ordezkatzuz, lau kide, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkarietasun handiena duten sindikatuak izendatuak, Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

c) Enpresa-erakundeak ordezkatzuz, lau kide, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak izendatuak.

Gobernu Kontseiluaren bileretan zuzendari kudeatzailea ere izanen da, hizpidearekin baina botorik gabe.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua, bere zuzendaritza-organoen goi-zuzendaritzapean, honako unitate organikoetan egituratzen da:

- Laguntza Tekniko eta Administrazioaren Zerbitzua.

- Prestakuntza Zerbitzua.

- Enplegua Sustatzeko eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzua.

- Bitartekaritza eta Orientazio Zerbitzua.

Zerbitzuak 163 langile ditu plantillan, honela banatuta:

Maila	Guztira
A	29
B	55
C	48
D	20
E	3
Mailarik gabe*	8
<b>Guztira</b>	<b>163</b>

\* Mailarik gabeko lanpostuak zuzendari kudeatzailearena, bost bulego-buruenak eta arloko bi arduradunenak dira.

2010ean, Zerbitzuak hiru aurrekontu-programa kudeatu zituen, honako exekuzio honekin (1. eranskinean haien helburu eta adierazleen bilakera ikus daiteke):

Programa	(milioiak)
880 – Zerbitzu Orokorak	8,6
881 – Enplegua Sustatzea	44,9
882 – Prestakuntza eta Bitartekaritza	27,7
<b>Guztira</b>	<b>81,3</b>

2005. eta 2010. urteen artean gastu osoa 63,4 milioi eurotik 81,3 milioi eurora igo da.

Kapitulu ekonomikoei erreparatuz gero, 81,3 milioi horiek honakoetan gastatu dira:

Langileria	8,1
Erosketak	3,5
Transf. arruntak	62,8
Inbertsioak	0,6
Kapital transf.	6,3
<b>Guztira</b>	<b>81,3</b>

Ikus daitekeen bezala, gastuetako kontusailik adierazgarrienak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko jarduerarik garrantzitsueni erantzuten dietenak transferentziak dira.

Transferentzia-gastuetako kontusail adierazgarrienak honakoak dira:

Azalpena	Arruntak	Kapitala
Enplegu-zentro bereziak	16	1,6
Langabeen prestakuntza	5	
Okupatuen prestakuntza	9	
Krisiaren aurkako neurriak	3,5	1,4
Tailer-eskolak	5	
INAFRE hitzarmena	1	
Toki-korporazioak, intereseko obrak	4,5	
Autonomoak		1,2
Guztira	44,0	4,2

2010. urteko 81,3 milioiko gastuak honako diru-sarrerekin finantzatu dira, neurri batean:

Beste diru-sarrera batzuk	2,8
Transf. arruntak	34,1
Kapital transf.	0,9
Guztira	37,8

Diru-sarreretako kontusail nagusiak Estatuaren transferentzietatik datoz (33,3 milioi euro), eta neurri batean gastuetako kontusail jakinekin lotuta daude; horiek Zerbitzutik kanpoko irizpide eta araudiak bete behar dituzte.

Ondorioz, Zerbitzuaren jarduna honako jarduerari-ildoetan laburbildu dezakegu:

- Langile eta enplegu-emaileentzako arreta. Langileei ematen zaien laguntza da, batez ere enplegu-eskatzaileei eta enplegu-emaileei, enpresei, hainbat erakunderi, sektore publikoari... enplegu-agentzietan. Administraziozko prozesuak kudeatzen dira, langabeen erregistroaren mantentzeari, kontratauei, lan-eskaintzei eta abarrekoiei dagokienez.

- Eskaintza eta eskariaren arteko bitartekaritza: Zerbitzuan gutxi erabiltzen den jardura da. Berez, enplegu-agentziak lotzen du eskaintza eskariarekin eta haren zerbitzuak doakoak dira.

- Enpleguaren sustapena. Baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten taldeen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzearekin eta gizarte-ekonomia sustatzearekin lotutako zereginak ditu.

- Prestakuntza. Landun edo langabeentzako prestakuntza-jardura osoa hartzen du, beren egungo nahiz etorkizuneko lanpostuetarako trebakuntza handiagoa izan dezaten.

- Lanerako orientazioa. Langileei arreta pertsonalizatua ematen zaie, batez ere lana eskatzen dutenei, laneratzeko ibilbide pertsonalak ezarriz.

Enplegu-politika aktiboen artean honakoak nabarmentzen dira beren garrantzia kuantitatiboagatik:

- Enplegu-zentro berezientzako (Tasubinsa, Aspace eta abar) diru-laguntzak. Zailtasunak dituzten taldeak kontratatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko zentronen kostuen zati bat diruz laguntzen dute, eta, beraz, enpleguan zuzenean eragiten dute.

- Langabeen eta landunen prestakuntzarako diru-laguntzak.

Horren harira, nabarmentzekoa da NEZek ez duela zuzenean enplegua sortzen, baizik eta "enplegarritasun" baldintzak hobetzen laguntzen duela. Hau da, neurriak ezartzen ditu herritarrek enplegua lortzeko erraztasunak izan ditzaten, batez ere laneko prestakuntzaren eta orientazioaren arloan.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua honako hau da:

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardura aztertzea, eta, zehazki, aurrekontu-betetzeak benetan egindakoa islatzen ote duen jakitea.

- NEZen jardura indarreko araudiaren arabera egin ote den aztertzea.

- Adierazleetan oinarrituta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardura ebaluatzea eta helburuen betetze-maila aztertzea.

- 2008az geroztik CCOO eta UGT sindikatu-erakundeek eta CEN enpresa-erakundearen eskutik jasotako zenbatekoak jakinarazteko eskatu duten bi parlamentu-eskaerei erantzutea eta Nafarroako Gobernuak horien gainean egindako kontrola eta erakunde horiek egindako jardueren eraginkortasuna eta eragimena aztertzea.

Gainera, gure lana egitean honako gaiak sakondu nahi izan ditugu, ikuspuntu juridikotik:

- Araudia eta jurisprudentzia kontua hartuta, "ordezkaritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeak" adierazpenaren gainean egin behar den interpretazioa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gobernu-organoetan duten partaidetzaren eta hark ematen dituen laguntzen hartzaile izatearen ondorioetarako.

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutuen azterketa, batetik enpresa- eta sindikatu-erakundeek bere funtzionamenduan duten partaidetza antolatzen duen erakunde gisa, eta, bestetik, erakunde horiek partaide diren bere gobernu-organoen bidez diru-laguntzak eta laguntzak ematen dituen entitate gisa.

- TAS/718/2008 Agindua garatzen duen eta hirugarren oinarrian onuradunak ordezkariatasun handiena duten erakundeetara mugatzen dituen abenduaren 16ko 3821/2010 Ebazpenaren bidez araututako deialdiaren araudira egokitzea.

Txostenari Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduera osatzeko edo hobetzeko egokitzat jotzen diren gomendioak erantsi zaizkio.

Aurrekontuaren eta legezketasunaren berrikuspena 2010eko ekitaldiaren gainekoa da, baina 2005. urteaz geroztiko aurrekontu-betetzeak ere kontuan har daitezke.

Eraginkortasuna eta eragimena egiaztatzeko, Zerbitzuan dauden memoriak eta azterketak ere aztertu dira.

Jarduera-adierazleak soilik daudenez eta bete nahi ziren helburuen balorazioa ezin denez egin, lana mugatu egiten da.

Metodologia gisa, sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arau-ei jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta lanaren berezitasunaren arabera beharrezkotzat jotako egokitzapenak egin dira.

#### IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

##### IV.1. AURREKONTU-BETETZEARI BURUZ

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2005-2010 aldian 414,7 milioi euro gastatu ditu eta horietatik ehuneko 75 transferentzia arruntenak dira, honako zehaztasun hauekin:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua 2005-2010	Aitortutako betebeharrak 2005-2010	Kopuru osoa (%)
Langileria	42.310.498	10,20
Erosketak	20.274.205	4,89
Transf. arruntak	312.996.209	75,47
Inbertsioak	8.113.491	1,96
Kapital transf.	31.031.975	7,48
Guztira	414.726.378	100,00

Aldi horretako diru-sarrerak 170 milioikoak izan dira eta ia guztiak transferentzia arruntei dagozkie, honela zehaztuta:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua 2005-2010	Guztira	Portzentajea
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	10.677.011	6,28
Transf. arruntak	158.522.659	93,21
Kapital transf.	874.613	0,51
Guztira	170.074.283	100,00

Beraz, Nafarroako Gobernuaren funts-ekarpena 244,7 milioi eurokoa da.

**2.** Aitortutako betebeharrak 81,3 milioi eurokoak eta aitortutako eskubideak 37,8 milioi eurokoak izan ziren, berriz, 2010eko ekitaldian, honako zehaztasunekin:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua	Aitortutako betebeharrak 2010	Kopuru osoa (%)
Langileria	8.175.135	10,05
Erosketak	3.506.336	4,31
Transf. arruntak	62.823.874	77,21
Inbertsioak	592.513	0,73
Kapital transf.	6.269.528	7,71
Guztira	81.367.386	100,00

Ekonomikoa	Aitortutako eskubideak 2010	Portzentajea
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.809.947	7,42
Transf. arruntak	34.159.860	90,26
Kapital transf.	874.613	2,31
Guztira	37.844.421	100,00

Gastu eta diru-sarrera horiek ehuneko 28 eta 58 igo dira 2005ekoekin alderatuta. Hala ere, 2010ean igo egin ziren gastuaren zenbatekoak, krisiaren aurkako neurrietarako kontusail berria sortu zelako, enplegu-zentro bereziek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten hobarirako laguntzak igo egin zirelako eta Estatuak finantzatutako programek gora egin zutelako.

**3.** Enplegu-politika aktiboak finantzatzeko, Foru Komunitatearen funtsak, Estatuak autonomia erkidego guztientzat ezarritako neurriak gauzatzeko egindako ekarpenak eta Europako funtsak erabiltzen dira; horiekin finantzatzen dira programa operatiboetan onartutako ekintzen ehuneko 50.

**4.** 2005-2010 aldian enplegu-politiken gastua eta finantziazioa honakoak izan ziren:

Enplegu-politiken gastua, guztira (1)	Enplegu Zentro Berezien Finantziazioa			Gainerako politiken finantziazioa						
	Enplegu zentro berezien gastua (2)	Nafarroako Gobernuaren finantziazioa (3)	% (3/2)	Gainerako enplegu-politiken gastua (enpleguaren eta prestakuntzaren sustapena) (4=1-2)	Nafarroako Gobernua (5)	% (5/4)	Estatuaren funtsak (6)	% (6/4)	Europa funtsak (7)	% (7/4)
312.996.209	71.385.456	71.385.456	% 100	241.610.752	97.444.517	% 40	131.279.937	% 55	12.886.299	% 5

Hau da, Nafarroak ehuneko 100 finantzatzen ditu enplegu-zentro berezien jarduerak. Gainerako politikan, ehuneko 40 Nafarroari dagokio, ehuneko 55 Estatuak jartzen du eta gainerako ehuneko 5a Europatik dator.

Enplegu-politiken gastu osoa kontuan hartuta, honakoa da finantziazioa:

	Finantziazioa	Ehunekoa
Nafarroa	168.829.973	% 54
Estatua	131.279.937	% 42
Europa	12.886.299	% 4
Gastua, guztira	312.996.209	% 100



2005-2010 aldian, enplegu-politiketara bideratutako zenbatekoaren ia laurden bat enplegu-zentro berezietarako da, eta, beraz, laguntza hori gabe lana lortzeko askoz aukera gutxiago edukiko lukeen talde bat laneratzea lortzen da.

**5.** Lanbide-heziketaren kasuan, landunei eta langabeei zuzendutakoaren artean bereizten da.

- Langabeei zuzendutakoa, 2010. urtean 5 milioi izan dituena egindako 123 ikastaroetarako, norgehiagokaren bidez eman da, batez beste ikasle bakoitzeko eta orduko 9,41 eurotan, eta kasuen ehuneko 90etan 9 eurokoa izan da. Gastuen justifikazioa kanpoko auditore baten txostenaren bidez egin da.

- Landunei zuzendutakoa, 2010. urtean 8,9 milioi izan dituena 1.347 ikastaroetarako (ordezkaritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeek parte har dezakete horietan). Batez beste ikasle bakoitzeko eta orduko 11,74 eurokoa da, kasuen ehuneko 60tan 13 eurokoa. Gastuen justifikazioa dokumentazioa aurkeztuz egiten da.

#### IV. 2. INDARREKO ARAUDIRA EGOKITZEARI BURUZ

**6.** Orokorrean, aurrekontu-betetzea araudi aplikagarriaren arabera egiten da.

**7.** Ordezkaritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeek autonomia erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoetako ordezkari-organoa aholku-emailean duten partaidetza (hiru alderdikoa eta parekidea) indarreko esparru juridikora egokitzen da.

**8.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Estatuko araudia bete du enplegurako lanbide-heziketaren azpisistemaren eremuan diru-laguntzak emateko orduan, Foru Komunitatearen eremura egokituz.

**9.** Ekidin beharko litzateke entitate batek Nafarroako Enplegu Zerbitzua bezalako erakunde bateko zuzendaritza-organoean dagoen aldi berean –lankidetzaz hitzarmenentarako aurretiazko onespena ematen dute– horien onuradun izan ahal izatea, enplegurako lanbide-heziketako diru-laguntzen esparruan.

**10.** Abuztuaren 2ko ESS 1726/2012 Agindua onartu ondoren, Foru Komunitateak bere araudia egokitu beharko du eta landunei, zentroeiei eta behar bezala akreditatu eta inskribatutako prestakuntza-erakundeek zuzendutako prestakuntza-planak egiten parte hartzeko aukera aurreikusitako beharko du.

#### IV.3. UGTk, CCOOk ETA CENek 2008tik JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZ

**11.** 2008. eta 2010. urteen artean, CEN, UGT eta CCOO erakundeek (sindikatu-zentral honekin lotutako ANAFE fundazioa ere barne) hainbat diru-laguntza jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren eskutik eta horietako adierazgarrienak NEZetik jasotakoak dira (prestakuntza eta abar). Era berean, erakunde horretatik jaso dituzte, zuzenean, INAFREekin enplegu-behatokirako egindako hitzarmenetik datozen laguntzak, INAFRE fundazioa erakunde horiek osatzen baitute. Gainera, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen laguntzak jaso ditzakete.

Hona horien laburpena:

	NEZ	INAFREkiko hitzarmena: Enplegu-behatokia	Departamentuak	Guztira
UGT	16.175.025	1.214.106	4.059.295	21.448.426
CCOO	15.977.772	1.190.584	3.718.848	20.887.204
CEN	14.430.858	1.020.297	2.798.872	18.250.027
ANAFE			808.031	808.031
Guztira	46.583.655	3.424.987	11.385.046	61.393.688



#### IV.4. ERAGINKORTASUNA, ERAGIMENA ETA EKONOMIA

**12.** Egindako jarduera jasotzen duten aurrekontu-adierazleak ezartzea, aurrekontu-betetzearekin ez lotzea, azken eragina baloratzeko helburu eta adierazleak ez haztatzea, besteak beste, eragozpena dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardueraren eraginkortasuna, eragimena eta ekonomia oro har baloratu ahal izateko. Horren harira, aipatzekoa da enplegu-planaren jarraipen-txostenak ez dituela aurrekontu-adierazleak erabili eta beste berri batzuk egin dituela.

**13.** Prestakuntza enplegua lortzeko orduan eragina duten aldagaietako bat da, baina ez bakarra, eta, beraz, oso zaila da aldagai bakar batek enpleguan izan dezakeen eragina baloratzeko.

**14.** Logikoa da egungoa bezalako garaietan, krisi ekonomikoa hor dagoela eta langabezia gorantz doala kontuan harturik, Zerbitzuaren funtsak eta, ondorioz, bere prestakuntza-jarduerak gehitzea. Izan ere, hori da enplegu-sorkuntzan eragiten duten aldagai aniztetako bat eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak haren gainean jardun dezake.

**15.** Azken hilabeteetan ikastaro-sistemaren ordeztasun "profesionaltasun-ziurtagiriak" ematen dituztenena gailentzen ari da, hau da, langileei lanbide-heziketako edo prestakuntzako titulazioak lortzeko aukera ematen dien prestakuntza-sistema.

**16.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren alderdi guztiak aztertzea komeni da. Honakoak dira, funtsean:

- Langile eta enplegu-emaileentzako arreta. Administrazio prozesuak kudeatzen dira, langabeen erregistroaren mantentzeari, kontratuei, lan-eskaintzei eta abarrekoei dagokienez.

- Eskaintza eta eskariaren arteko bitartekaritza. Enplegu-agentziak lotzen du eskaintza eskariarekin eta haren zerbitzuak doakoak dira.

- Enpleguaren sustapena. Zailtasunak dituzten taldeen laneratzea babesteko eta gizarte-ekonomia sustatzeko funtzioak ditu.

- Prestakuntza. Landun edo langabeentzako prestakuntza-jarduera osoa barne hartzen du, beren egungo nahiz etorkizuneko lanpostuetarako trebakuntza handiagoa izan dezaten.

- Lanerako orientazioa. Langileei arreta pertsonalizatua ematen zaie, batez ere lana eskatzen dutenei, laneratzeko ibilbide pertsonalak ezarri.

Argi dago horiek guztiak enpleguaren sorkuntza, sustapena eta iraupena babesteko neurriak direla, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez baitu enplegua zuzenean sortzen.

Enpleguan eragiten duten faktore guztiak kontuan hartuta, zaila da helburu bat lortzeko aukera helburu horretan eragina duten neurrietako baka-rarekin lotzea.

**17.** Era berean, kontuan hartu behar da enplegu-plan horietan sortzen diren jarduera guztiak lortzen den gizarte-eragina.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Aurrekontu-programek zerbitzuaren jarduera baloratze aldera aurreikusten dituzten adierazleak berrikustea, jarduera-adierazleak eta bestelakoak barne, adierazle horiek aurrekontu-betetzearekin lotuz eta haztatuz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardueraren gaineko balorazio orokorra erraztearren.*

- *Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpleguan eragiteko zein beste jarduera egin ditzakeen aztertzea, faktore askok baitute eragina.*

- *Zentro berriak prestakuntza-jardueretara sartzeko ezinezko bihurtzen duten baremoak berrikustea, eta, hala badagokio, aldatzea.*

- *Araudian gastua aitortu eta aplikatzeko irizpideak ahalik eta gehien zehaztea, ahal den neurrian araudia kasu zehatzetan interpretatu beharra saihesteko.*

**V. IRUZKINAK**

Atal honetan hainbat iruzkin eginen ditugu, aurreko ataleko ondorioen osagarri.

**V.1. AURREKONTU-BETETZEARI BURUZ**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gastuen aurrekontu-betetzea, 2005. eta 2010. urteen artean, honako taulan azaltzen dena da:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua	Aitortutako betebeharrak 2005	Aitortutako betebeharrak 2006	Aitortutako betebeharrak 2007	Aitortutako betebeharrak 2008	Aitortutako betebeharrak 2009	Aitortutako betebeharrak 2010	Guztira	Kopuru osoa (%)
Langileria	5.894.232	6.232.314	6.550.943	7.166.210	8.291.663	8.175.135	42.310.498	% 10,20
Erosketak	2.242.989	2.884.653	3.279.361	3.763.679	4.597.187	3.506.336	20.274.205	% 4,89
Transf. arruntak	48.647.290	47.674.760	47.108.068	49.812.678	56.929.539	62.823.874	312.996.209	% 75,47
Inbertsioak	979.709	1.517.833	2.215.080	1.984.054	824.303	592.513	8.113.491	% 1,96
Kapital transf.	5.735.738	3.992.397	4.011.642	5.371.712	5.650.958	6.269.528	31.031.975	% 7,48
Guztira	63.499.958	62.301.957	63.165.093	68.098.333	76.293.650	81.367.386	414.726.378	% 100,00

Taula horretatik ondoriozta daitekeenez, 2005 eta 2010 artean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 414,7 milioi euro gastatu ditu eta horietatik ehuneko 75 transferentzia arruntei dagozkie.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko diru-sarreraren aurrekontu-betetzea taula honetan azaltzen dena da:

Ekonomikoa	Aitortutako eskubideak 2005	Aitortutako eskubideak 2006	Aitortutako eskubideak 2007	Aitortutako eskubideak 2008	Aitortutako eskubideak 2009	Aitortutako eskubideak 2010	Guztira	Kopuru osoa (%)
Tasak eta beste diru-sarrerak	1.054.041	1.392.625	1.940.269	2.132.768	1.347.360	2.809.947	10.677.011	% 6,28
Transf. arruntak	22.828.516	23.455.913	27.299.418	23.589.482	27.189.468	34.159.860	158.522.659	% 93,21
Kapital transf.	0	0	0	0	0	874.613	874.613	% 0,51
Guztira	23.882.557	24.848.539	29.239.687	25.722.250	28.536.829	37.844.421	170.074.283	% 100,00

Taulatik ondoriozta daitekeenez, 2005 eta 2010 artean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 170 milioi sartu ditu, hau da, egindako gastuaren ehuneko 41. Diru-sarrera horietatik ehuneko 93 INEMen eta Europako funtsen transferentziei dagozkie.

Hau da, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari egindako funts-ekarpena 245 milioi eurokoa da aldi horretan.

**V.2. LANGILERIA**

Aldi horretako langileria-gastuen 42 milioiak lanpostu hauetako ordainsariei dagozkie:

Zentroak	2005	2006	2007	2008	2009	2010	Aldakuntza 2005/2010
Zerbitzu zentralak	63	65	70	70	71	69	% 9,52
Agentziak/Unitateak	78	77	77	76	76	78	0,00
Iturrondo zentroa	14	14	12	12	12	12	% -14,29
CENIFER (*)						4	
Guztira	155	156	159	158	159	163	% 5,16

2005eko eta 2006ko plantilla organikoetan Iturrondo Zentroa "Prestakuntza Zentroen eta Enplegu-tailerren Atala" deitzen zen.

(\*) CENIFER Energia Berriztagarrien eta Eraginkortasun Energetikoaren Erreferentzia Nazionalako Zentroa da.

Aztertutako azken ekitaldiari erreparatuz gero, plantilla honela banatzen da mailetan:

Maila	Zerbitzu zentralak	Agentziak / Unitateak	Iturrondo zentroa	CENIFER	Guztira
A	12	13	3	1	29
B	23	26	4	2	55
C	22	24	2	-	48
D	6	13	-	1	20
E	-	-	3	0	3
Mailarik gabe (*)	6	2	-		8
<b>Guztira</b>	<b>69</b>	<b>78</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>163</b>

Agentziak/unitateak honakoak dira: hiru enplegu agentzia Iruñean eta bat Tuteran. Sei lurralde unitateak honakoak dira: Tafalla, Lizarra, Altsasu, Lodosa, Doneztebe eta Agoitz.

(\*) Mailarik gabeko 8 lanpostuak zuzendari nagusiari, 5 bulego-burutzei eta arloko 2 arduradunei dagozkie (bete gabeak), eta edozein mailatan esleitu daitezke.

163 lanpostuetatik 123 zeuden okupatuta eta 26 hutsik, eta gainerako 11k zerbitzu berezietan edo antzekoetan zeuden, lanpostu-erreserbarekin. 26 lanpostu hutsetatik 17 beteta zeuden.

2010-12-31n, 199 pertsona ari ziren lanean, egoeraren arabera planetarako langileak baitaude: krisiaren aurkakako neurriak, lanbide-orientazio aparteko plana, enplegu-zerbitzu publikoen modernizazioa, FORCEN (enplegu-prestakuntza-ko hirualdeko fundazioa).

Nahiz eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa den, Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza Departamentua arduratzen da lan-

gileak kudeatzeaz. Era berean, bertan egiten dira nominak eta bertan kokatzen dira langileen espedienteak.

Egindako laginketatik ondoriozta daitekeenez, langileei egindako ordainketak zuzenak dira eta 2010. urtean 12/2010 Foru Legean aurreikusitako murrizketa aplikatu zitzaizkien langileei.

### V.3. ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKE-TAK

2005. eta 2010. urteen arteko funtzionamendu-gastuen bilakaera honako taulan ikus daiteke:

2. kapitulua	2.005	2006	2007	2008	2009	2010	Portzentajea 2010/2009
Errentamenduak	539.008	634.126	547.555	525.923	475.904	471.826	-1
Konponketak, mantentzea eta kontserbazioa	26.070	31.840	38.639	47.155	40.851	18.708	-54
Materiala, hornidurak eta besteak	1.508.540	2.040.597	2.577.901	3.103.785	3.991.484	2.944.844	-26
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	81.329	83.612	73.837	80.905	77.597	70.957	-9
Argitalpenen gastuak	88.042	94.478	41.429	5.910	11.351	0,00	-100
<b>2. kapitulua, guztira</b>	<b>2.242.989</b>	<b>2.884.653</b>	<b>3.279.361</b>	<b>3.763.678</b>	<b>4.597.187</b>	<b>3.506.335</b>	<b>-24</b>

2009. urtera arte hazkunde etengabea ikus daiteke eta 2010. urtean, aldiz, beherakada. Izan ere, "orientazioaren aparteko planaren ekintza osagarriak" eta "gizarte-intereseko enplegu-programa komunitarioa" kontzeptuetan 2009an 700.000ko exekuzioa izan zen eta 2010ean ez da exekuziorik izan. Hori horrela, beherakadaren ehuneko 67 arrazoi horren emaitza da.

Kapitulu honetako gastu nagusiak lokalen alokairua, garbiketa, mantentze informatikoa eta kanpo-auditoreek egindako egiaztapen-kontratuak eta finantza-kontrola dira.

2010ean egindako azterketari jarraiki, kontabilitatu den gastua egokia da.

#### V.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

2005. eta 2010. urteen arteko transferentzia arrunten bilakaera honako taulan ikus daiteke:

	Ekonomikoa	Betebeharra 2005	Betebeharra 2006	Betebeharra 2007	Betebeharra 2008	Betebeharra 2009	Betebeharra 2010	Guztira	Kopuru osoa (%)	Aldakuntza 2010/2005
Merkataritza, industria eta finantzako erakunde autonomoak	43	150.000	0	240.000	120.000	60.000	80.000	650.000	0,21	% -46,67
Enpresa publikoak eta beste erakunde publikoak	44	868.399	760.507	843.877	1.054.084	976.558	472.233	4.975.658	1,59	% -45,62
Toki-korporazioak	46	2.386.948	2.974.936	3.093.917	3.616.385	6.056.895	4.508.463	22.637.543	7,23	% 88,88
Enpresa pribatuak	47	9.291.219	7.016.017	7.049.181	19.931.777	18.805.604	29.868.919	91.962.717	29,38	% 221,47
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	48	35.950.724	36.923.300	35.881.093	25.090.433	31.030.482	27.894.259	192.770.290	61,59	% -22,41
4. kapituluak, guztira		48.647.290	47.674.760	47.108.068	49.812.678	56.929.539	62.823.874	312.996.209	100,00	% 29,14

2005. urtetik transferentzia arrunten gastuan izandako bilakaeran ehuneko 29ko igoera antze-man da aldi horretan; enpresa pribatuak egindako transferentzia arruntek goranzko joera izan dute (2010-2005 aldiaren ehuneko 221eko igoera, 20 milioi euro) eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako transferentzia arruntak jaitsi egin dira (2010-2005 bitartean ehuneko 22ko jaitsiera, 8 milioi euro).

2010. urtean bi kontusailik adierazgarrienak honakoak izan dira:

Transferentzia arruntak enpresa pribatuak:

2010eko ekitaldian, enpresa pribatuak egindako transferentzia arrunten gastua 29.868.919 euro da, hots, ehuneko 59 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kontzeptu honen gastua ehuneko 47 da ekitaldiko kapitulu osoaren aldean eta ehuneko 29 aldi honetan.

Enpresa pribatuak egindako transferentzien ehuneko 79 honakoetara bideratu dira:

- Enplegu-zentro berezientzako transferentziak. (15 milioi)
- Enplegurako Lanbide Heziketa, langabeei lehentasunez zuzendua (5 milioi).
- Krisiaren aurkako neurriak, enplegu-ibilbideetarako diru-laguntzak (3,5 milioi).

Igoera, balio absolututan, 11 milioi eurokoa da, funtsean kontusail adierazgarrienak igo egin direlako:

- Enplegurako Lanbide Heziketa, langabeei lehentasunez zuzendua (1,7 milioi).
- Enplegu-zentro berezientzako transferentziak (7,2 milioi).
- Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu-ibilbideetarako diru-laguntzak (3,4 milioi).

Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentzia arruntak:

2010ean, irabazi-asmorik gabeko erakundeak egindako transferentzia arrunten gastua 27.894.258 eurokoa izan da; aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko 10 jaitsi da. Kontzeptu honetako gastua ehuneko 44koa da ekitaldiko kapitulu osoaren aldean eta ehuneko 62koa aldi honetan.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak egindako transferentzien ehuneko 60 honakoetarako izan da:

- Enplegurako Lanbide Heziketa, landunei lehentasunez zuzendua (9 milioi).
- Tailer-eskolen programa (5 milioi).
- Zailtasun gehien duten taldeak laneratzeko programak (1,2 milioi).
- INAFRErekiko hitzarmena, Enplegu Behatoki-rako (milioi bat).

Honako kontusailak berrikusi dira:

- Enplegurako lanbide-heziketa: 14 milioi.
- Tailer-eskolak: 5 milioi.
- Gizarte-intereseko obren kontratazioak: 4,5 milioi.
- Enplegu-zentro bereziak: 16 milioi.
- Krisiaren aurkako neurriak: 3,5 milioi.
- INAFRE hitzarmena: milioi bat.

##### V.4.1 Enplegurako lanbide-heziketa

TAS/718/2008 Aginduak prestakuntzarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu. Agindu horretan ezarritako prestakuntza-modalitateak honakoak dira, besteak beste:

- a) Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak. Diru-laguntzak norgehiagoka-

arabidean ematen dira. Martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuko 9.1 artikuluan aurreikusitako zentroak, erakundeak eta enpresa- eta sindikatu-erakundeak izanen dira onuradunak.

b) Lehenetsunez landunei zuzendutako prestakuntza-planak. Diru-laguntza horien onuradunak

Modalitatea	Oinarrizko prestakuntza-maila	Goi-mailako prestakuntza-maila
Presentziala	9 €	13 €
Urrutiko prestakuntza	7,5 €	
Distantzia konbentzionalen	5,5 €	

**V.4.1.1.** Enplegurako Lanbide Heziketa, langabeei lehenetsunez zuzendua.

2001ean, kontusail honek 5.081.965 euroko exekuzioa izan zuen, hau da, 2009koarekin alderatuta, ehuneko 51 igo zen.

Kontusail honetan sartzten dira zentro lankidetzako prestakuntza-ekintzak eta ikastaroetara joateko langabeen beka eta laguntzak finantzatzeko baliabideak. Laguntza horiek norgehiagokaraubidean ematen dira, deialdi publiko bidez. Laguntzak zuzenean ematea martxoaren 24ko 357/2008 Errege Dekretuan aurreikusita dago, ikasleak kontratatze konpromisoa dagoenerako. Era berean, kontusail horretan sartzten dira lanbide-heziketa arautuko ikastetxe eta institutu publikoetan egindako ikastaroengatik sortutako gastuak, 360.000 euro inguru.

Araudiak honako beka eta laguntzak ezartzen ditu:

- Minusbaliotasuneko beka. Ehuneko 33tik gorako minusbaliotasun aitortua dutenak egunean 9 euroko laguntza jasotzen dute.

- Garraiorako laguntza. Egunean gehienez 15 euroko laguntza; justifikatu egin behar da.

- Mantenerako laguntza. Goiz eta arratsaldeko ikastaroetan ari diren eta beren etxebizitza 20 kilometrotik gorako distantzian duten horientzat gehienez egunean 12 euroko laguntza ezartzen da.

- Ostatu eta mantenerako laguntza. Joan-etorriak ezin badira egunero egin eta ikaslearen bizilekua 120 kilometroraino baidago, egunean gehienez 60 euro jaso ahalko dira.

- Bateragarritasunerako laguntza. 6 urtetik beherako seme-alabak edo mendeko ahaideak (bigarren mailara artekoak) beren kargu dituzten eta zenbait baldintza betetzen dituzten pertsonen egunean IPREM-en (ondorio askotarako errenta-

ordezkaritasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeak dira.

Gehieneko modulu ekonomikoak prestakuntza-ren mailaren eta modalitatearen arabera ezartzen dira:

adierazle publikoa) ehuneko 75eko laguntza jaso ahalko dute gehienez.

2010ean, Nafarroako Gobernuarenak ez diren zentroetan egindako ikastaroetarako hiru ebazpen onartu dira:

- Lehenengoan 2.770.650 euroko ikastaroak adjudikatu zaizkie 40 zentro eskatzaileetako 25i.

- Bigarrenean prestakuntza-ekintzak egiteko laguntzak zuzenean ematea baimendu da, 141.075 euroko kontratazio-konpromisoarekin. Kontratazio-konpromisoa ikastaroetako parte-hartzaileen ehuneko 60 kontratatzekoa da gutxienez; kontratu mugagabeak edo sei hilabetetik beherakoak dira.

- Hirugarrenean 1.272.000 euroko ikastaroak adjudikatu zaizkie 21 zentro eskatzaileetako 17ri.

Laburbilduz, 28 zentrok (batzuk errepikatu egin baitira) 4.183.725 euro jaso dituzte 123 ikastaro egiteko, guztira 29.635 ordutan, eta bertaratu diren ikasleak 1.845 izan dira, hots, 15 ikasle ikastaroko. III. eranskinean horien banaketa ikus daiteke.

Ikastaro guztietarako batez besteko kostu/ordu/ikasle modulua 9,41 eurokoa da eta ikastaro gehienetan 9 euro/ordu/ikasle modulua dago.

Zentroek ekintza bakoitzerako "gastuen aitortzea eta azken likidazioa" aurkezten dute, kanpoko auditore batek egindako berrikuspenaren txostenarekin batera; auditore hori berrikuspena egiteko laguntza teknikoko kontratuaren adjudikazioduna izanen da.

Kalkulu aritmetikoa eta gastuen euskarria egoiak dira eta ordainketak zuzenak direla egiaztatu da. Gastuak prestakuntza-jardueraren zuzeneko gastuak dira (langileak, lokalak, materialak...); prestakuntza-jarduerari lotutakoak (laguntzaileak, finantza-arlokoak...) ezin dira prestakuntza-jardueraren ehuneko 20tik gorakoak izan; eta bestelako-

ek, ebaluazio-gastuek kasu, ezin dute prestakuntza-jarduera ehuneko 5 gainditu.

Langabeen deialdian aurrerakin bat dago eta diru-laguntzaren azken ordainketa ez da egiten ekintza amaitu arte. Azken likidazioa finantza berrikusten duen txostenaren oniritziarekin aurkezten da.

Egindako azterketatik ondoriozta daitekeenez, egindako gastuak eta emandako diru-laguntzak ondo justifikatuta daude.

Hala ere, hauxe adierazi behar dugu:

Ikastaroak	123
Orduak	29.635
Ikasleak	1.845
Hasieran emandako diru-kopurua	4.183.725
Zuzeneko kostuak	2.949.476
Kostu lotuak	600.921
Bestelako kostuak	124.940
Justifikatua, guztira	3.675.337
Bekak, garraioa, ikastetxeetako gastua, etab.	1.406.628
Kontusaila, guztira	5.081.965

Hauek dira datu horietatik atera ditzakegun ondorioak:

Irakaskuntza	
Kostua ikastaroko	$3.675.337 / 123 = 29.880$
Kostua ikasleko	$3.675.337 / 1.845 = 1.992$
Kostua orduko	$3.675.337 / 29.635 = 124$
Ikastaroaren batez besteko iraupena	$29.635 / 123 = 241$ ordu

**V.4.1.2.** Enplegurako Lanbide Heziketa, landu-nei lehentasunez zuzendua.

2010ean kontusail honek 8.905.772 euroko exekuzioa izan zuen, 2009ko ekitaldian izandakoaren antzekoa.

Prestakuntza-planak betetzeko, erakunde onuradunen eta NEZen artean sinatutako hitzarmenak hartzen dira oinarritzat.

2010ean Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziarioarekin garatzeko aurreikusitako zen deialdi hori azkenean ez zen 2007-2013 bitarteko Europako Gizarte Funtsaren estatu-programa operatiboan sartu.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutuetako 8. artikulua araberaren arabera, ordezkartasun handiena

a) Adjudikazio-irizpideetan, baremoa kontuan hartuta, aurreko ekitaldietan ikastaroak egin dituzten zentroek dute lehentasuna, eta ia ezinezkoa da zentro berriak sartzea.

b) Irizpide batzuen aplikazioa oro har oinarrietan zehazten da, esate baterako kostu lotuak eta bestelako kostuak kalkulatzeko, eta haien aplikazio praktikoari buruzko azken erabakia auditoreak hartzen du.

Hurrengo taulan langabeen prestakuntza-jardura honen laburpena dugu:

duten gizarte-solaskideek enplegu-politiken planifikazioan parte hartzen dute, berauek garatzen dituzten arauen aldeko txostenak ematen dituzte eta aurretiaz ados daude gero onuradun izaera eman dieten lankidetzak-hitzarmenekin.

Emanen diren diru-laguntzek hitzarmen bakoitzeko gehieneko zenbatekoa izanen dute eta zenbateko hori lehen ezarritako gehieneko modulu ekonomikoen arabera kalkulatu da.

Oinarrien arabera, "diru-laguntzen eskatzaile eta onuradun izan ahalko dira Estatuan eta Nafarroako Foru Komunitatean ordezkartasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeak (horri buruz, ikus hurrengo atala).

Laguntza emateko ebazpenaren arabera, honela banatzen da laguntza:



CCOO sindikatu-erakundea	2.902.359
UGT sindikatu-erakundea	2.903.260
CEN enpresa-erakundea	2.985.098
<b>Guztira</b>	<b>8.790.717</b>

Gainerakoa, 8.905.772 euroraino, ikasleentzako beka eta laguntzen gastuak dira.

Erakunde onuradun bakoitzak hitzarmena sinatzen du NEZekin, eta, bertan, prestakuntza-planaren, finantziarioaren eta diruz lagundutako jarduerara osorik edo zati batean egiten duten erakunde azpikontratatuena ezaugarriak deskribatzen dira.

2010eko Prestakuntza Planaren sartu diren prestakuntza-ekintzak 2010eko urtarrilaren 1etik

2011ko uztailaren 31ra bitartean egin ahalko dira.

Enplegurako prestakuntza-ekintzak hedatu, ebaluatu eta jarraitu ahal izateko eta hitzarmena interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitzekeo, Batzorde Mistoak eratu da. Batzorde horretan NEZeko hiru kide eta gizarte-eragileek izendatutako beste hiru sartzen dira.

Batzorde mistoak, hala badagokio, onartutako Prestakuntza Planaren aldaketak adostu ahalko ditu.

Hasierako onarpenaren eta onetsitako aldaketa ugarien ondoren, azkenean eginen diren jarduerak honakoak dira:

Langileen ikastaroak	Hasierako kontzesioa				Justifikatua		
	Ikastarokopurua	Orduak	Ikasle-kopurua	Emandako dirukopurua	Egindako ikastaroak	Justifikatutako zenbatekoa	Itzulkina
CEN	603	17.578	8.923	2.985.098	569	2.881.335	103.762
UGT	285	16.140	4.550	2.903.260	285	2.883.069	20.190
CCOO	496	18.204	7.032	2.902.359	493	2.542.642	359.717
<b>Guztira</b>	<b>1.384</b>	<b>51.922</b>	<b>20.505</b>	<b>8.790.717</b>	<b>1.347</b>	<b>8.307.046</b>	<b>483.669</b>

Laguntzaren ehuneko 100 ordaintzen da prestakuntza-ekintzak amaitu aurretik, gehienez zazpi hilabete lehenago. Ikus daitezkeen bezala, justifikatutako zenbatekoa emandakoa baino txikiagoa da eta ekintzak amaitu baino lehen ordaintzen da. Ondorioz, aldeak 2011. urteko ekitaldian itzultzen dira. Gogoratu beharra dago plana 2011ko uztailera arte bete daitekeela.

Justifikazioa eta likidazioa Enplegu Prestakuntzarako Hirualdeko Fundazioaren programa kudeatzeko aplikazio informatikoaren bidez gauzatzen dira. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartutako kostuen jarraipen eta justifikaziorako jarraibidearen arabera egiten da justifikazio hori.

Hiru erakunde onuradunek honako datuak akreditatu dituzte:

Langileen ikastaroak	Ikastarokopurua	Justifikatutako kopurua	Kostu zuzenak, guzt.	Kostu lotuak, guzt.	Ebaluazio eta kontrolaren kostuak	Itzulkina
CEN	569	2.881.336	2.584.747	294.638	1.950	103.762
UGT	285	2.883.069	2.222.017	554.379	106.673	20.190
CCOO	493	2.542.643	1.957.326	473.833	111.483	359.717
<b>Guztira</b>	<b>1.347</b>	<b>8.307.048</b>	<b>6.764.091</b>	<b>1.322.851</b>	<b>220.106</b>	<b>483.669</b>

Lotutako gastuak ezin dira prestakuntza-jardueraren ehuneko 20tik gorakoak izan (zuzeneko kostuen ehuneko 25aren parekoa) eta diruz lagun daitezkeen bestelako kostuak ezin dira emandako diru-laguntzaren ehuneko 5etik gorakoak izan.

Justifikazioaren dokumentazioa Ministeriora bidaltzen da, finantza-aldetik kontrola dadin.

2010eko hitzarmenaren indarraldia 2011ko urriaren 31n amaituko da eta egun horretan bukatuko

da diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko epea. Justifikazio hori NEZen aurkeztu behar da 2011ko uztailan, eta 2011ko urriaren bidaliko zaio Ministerioari. NEZen dokumentazioa antolatzen da eta fundazioaren aplikazio informatikoko dokumentazioaren kopiak gordetzen dira: jardueraren ziurtargiriak eta prestakuntza-ekintzen kostua.

Hurrengo taulan landunen prestakuntza-jardueraren honen laburpena dugu:



Ikastaroak		1.347
Hasieran emandako zenbatekoa		8.790.717
Zuzeneko kostuak	6.764.091	
Kostu lotuak	1.322.851	
Bestelako kostuak	220.106	
Justifikatua, guztira		8.307.048
Bekak, etab.		598.724
Kontusaila, guztira		8.905.772

Hauek dira datu horietatik atera ditzakegun ondorioak:

Irakaskuntza			
Kostua/ikastaroko	<u>8.307.048</u> 1.347	=	6.167
Kostua/ikasleko	<u>8.307.048</u> 20.505	=	405
Kostua/orduko	<u>8.307.048</u> 51.922	=	160
Ikastaroaren batez besteko iraupena	<u>51.922</u> 1.347	=	39 ordu

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko justifikazio-datuetan ez da zehatz-mehatz islatzen ikasleen eta emandako orduen benetako kopurua. Hasierako adjudikazioan, ikastaroak 1.384 ziren, orduak 51.922 eta ikasleak 20.505. Gutxi gorabeherako datu hauek erabili ditugu ikasle eta orduko kostuak kalkulatzeko.

**V.4.1.3.** Langabeen eta landunen Enplegurako Lanbide Heziketako deialdien konparazioa.

a) Langabeen Enplegurako Lanbide Heziketa, norgehiagoka-araubidean emana. Araudian aurreikusitako zentroak, erakundeak, enpresa- eta sindikatu-erakundeak dira onuradunak.

b) Landunen Enplegurako Lanbide Heziketa, ordezkartasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeak dira onuradunak.

Langabeen Lanbide Heziketan ikastaroen ehuneko 90 inguruk dute bederatzi euroko modulu bat.

Orduko eta ikasleko batez besteko kostua 9,41 euro da.

Landunen Lanbide Heziketan ikastaroen ehuneko 60 inguruk dute 13 euroko modulu bat.

2010ean orduko eta ikasleko batez besteko kostua, hasierako adjudikazioaren arabera, 11,74 euro da.

Irakaskuntzako kostua, orduko, 124 euro da langabeen kasuan eta 160 euro landunen kasuan.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan adierazi digutenez, alde horiek ikastaroen espezializazio eta iraupen desberdinen ondorioz gertatzen dira.

#### V.4.2. Tailer-eskolak

Tailer-eskolentzako laguntzen ondoriozko gastua 2010ean 5.136.331 euro da, aurreko ekitaldiko gastuaren parekoa.

Kontusail honek tailer-eskola eta lanbide-etxe, sustapen- eta garapen-unitate eta enplegu-tailerren programetarako laguntzen gastuari eusten dio. Nafarroako Aldizkari Ofizialean horietarako guztietarako deialdi bakarra dago. Erakunde sustatzaileek jaso beharreko ekarpen ekonomikoa kostu hauek ordaintzeko erabiliko da:

- Prestakuntza eta funtzionamenduaren kostuak: Zuzendaritzako, irakaskuntzako eta babeseko langileen, bitarteko didaktikoen, eskolako eta kontsumoko materialaren eta prestakuntza-proiektuen bestelako funtzionamendu-gastuen kostuak konpentsatuko ditu. Diru-laguntzen zenbatekoa prestakuntza-ordu eta ikasle bakoitzeko eta moduluka eta faseka kalkulatuko da.

- Ikasle langileen soldaten kostuak: Ikasle langileekin egindako prestakuntza-kontratuen ondoriozko soldata-kostuak: lanbide arteko gutxieneko

soldataren ehuneko 75 gehi enplegu-emailearen kargurako Gizarte Segurantzaren kuotak.

Deialdiaren oinarriak 2001eko azaroaren 14ko Aginduan jaso ziren.

Deialdia ez da urtero argitaratzen; deialdiaren eta haren oinarrien onarpena 2925/2006 Ebazpenean arautzen dira. Ondorengo ebazpen batek tailer-eskola eta lanbide-etxe, sustapen- eta garapen-unitate eta enplegu-tailerren programetarako laguntzak aldatzen ditu, 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arteko aldirako, Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziazioa ehuneko 50ean ezarriz.

2010ean, laguntzen hiru hartzaile nagusien laginerako, diru-laguntzaren ematea eta azken likidazioa berrikusi dira (Iruñeko Udala, Tuterako Udala eta Ilundain Fundazioa).

Egindako laginketatik ondoriozta daitekeenez, espedienteetan jaso dira asistentzia-sinaduren kontrola, gastuak egiaztatze faktura zein nominak eta ordainketak egiaztatze banku-laburpenak. Fase bakoitzerako, kanpoko enpresa batek egiten ditu gastuen justifikazioaren berrikuspen-txostenak.

Berrikusitako espedienteetan aldeak daude aurretiaz ordaindutako diru-kopuruaren eta justifikatutakoaren artean, eta, beraz, itzulkinak sortzen dira. Funtsean, ikasle langileekin egindako kontratuen ondoriozko soldata-kostuen emaitza dira alde horiek, emandako diru-laguntza baino txikiagoak direlako. Lan egindako orduak soilik ordaintzen dira, bajak bazter utziz.

#### **V.4.3. Gizarte-intereseko obren kontratazioak**

2010ean exekuzioa 4.499.463 eurokoa da, hau da, 2009koarekin alderatuta, ehuneko 9 igoa da.

Kontusail honetan sartu dira gizarte-interes orokorreko obra eta zerbitzuak egiteko langabeen kontratazioagatik tokiko erakundeei emandako 2010eko laguntzak. Erakunde eskatzaileentzako diru-laguntzaren zenbatekoa soldata-kostu osoen ehuneko 80, gehienez, ordaintzeko adina izanen da, kontratatutako langabe bakoitzeko Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa-kotizazioa barne, indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

Laguntza horiek otsailaren 10eko 15/2005 Foru Aginduaren bidez arautzen dira eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziazioa dute, ehuneko 50ean.

2010ean 188 udalek jaso dituzte 4.075.429,38 euroko laguntzak eta 19 kontzejuk eta 18 batzar

eta mankomunitatek jaso dute 439.446 euroko diru-laguntza.

Hiru udalen lagina hartu (Iruñea, Lizarra eta Cintruénigo), eta diru-laguntzaren kontzesioa eta azken likidazioa berrikusi dira.

Laginketan aztertutako hiru udalek guztira 596.833 euro jaso dituzte. Aurkeztutako 8 proiektu berrikusi dira, 52 langabe kontratatu dituztenak batez beste 8 edo 9 hilabeterako. Berrikusitako proiektuetatik azken likidaziorik gabe daude, berrikuspenaren garaian (2011ko abendua), Iruñeko Udalaren bi proiektuak eta Cintruénigoko Udalaren proiektu bat, egindako gastua justifikatzen duen dokumentazioa falta delako. Obra amaierako ziurtagiria aurkezteko epea hilabetekoa da. Proiektu guztietan ahal izan den gehiena finantzatu da: kontratatutako langabeen lan-kostuen ehuneko 80.

Kontrataziorako baldintzetan ez da eskatzen kolektibo behartu batekoa izatea edo enplegu-eskatzaile gisa antzintasun jakin bat izatea. Enpleguaren eskaintzan hau ageri da: "eskatutako lanera ongien egokitzen dena". Gure lana egin den garaian, oinarri buruzko araudi berria prestatzen ari zen, inguruabar berrietara egokitzeko.

Espediente guztietan egiaztatzen da kontratatutako pertsonak enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta daudela, baita beren kontratuak, nominak eta gizarte-segurantzako kotizazioak eta udalak bidalitako ziurtagiria egokiak direla ere; azken horretan edozein erakunde publikoren eskutik jasotako laguntzak proiektu honen kostuaren gainetik ez daudela azaltzen da.

#### **V.4.4. Enplegu-zentro bereziak**

1998ko urriaren 16ko Ministro Aginduaren arabera (4 B artikulua), lanpostuei eusteko laguntza hauek eman ahalko dira:

- Lanaldi arrunta duen eta Gizarte Segurantzari afiliaturik dagoen pertsona minusbaliatu batek betetzen duen lanpostuari dagokion soldata-kostuari aurre egiteko diru-laguntzak. Dagokion ekitaldi ekonomikoan zehar aplikatu daitekeen lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 (2009ko uztailaren 10etik 2011ko abenduaren 31ra). Hilero ordaintzen da, Enplegu Zentro Bereziak aurretiaz eskaera eginda, eta zuzendari kudeatzailearen ebazpen bidez onartzen da.

- Gizarte Segurantzarako enpresa-kuotaren ehuneko 100eko hobaria, lan-istripuak, gaixotasun profesionalak eta bilketa bateratuko kuotak barne.

- Irabazi-asmorik ez duten eta erabilera publikokoak eta ezinbestekoak diren enplegu-zentro berezi horien aurrekontua orekatzeko diru-lagun-

tzak. Diru-laguntza horrek ezin ditu estali Administrazioaren ustez kudeaketa kaskarra egin izanaren ondoriozko emaitza okerrak.

Irailaren 20ko 2782/2006 Ebazpenean beste laguntza-mota bat arautzen da: babes-unitateak, ezintasunen bat duten langileek lanpostu baterako sarrera-prozesuan aurkitzen dituzten oztopoak gainditzen eta lanpostuan irauten eta aurrera egi-

	Soldata-kostua	GZ hobaria	Babes-unit.	Aurrek. oreka	Guztira
2010	7.584.718	7.371.309	978.348	6.724	15.941.098
2009	5.065.372	1.461.915	1.196.505	961.229	8.698.522
Aldakuntza	2.519.346	5.909.394	-218.157	-954.505	7.242.576
Aldakuntza (%)	% 49,74	% 404,22	% -18,23	% -99,30	% 83,26

Aurrekontua orekatzeko ekarpen ekonomikoa "Lanpostuei eusteko krisiaren aurkako neurriak. EZBrentzako diru-laguntzak" kontusailean kontabilizatu da, 942.041,96 eurotan. Horrenbestez, 2010ean Enplegu Zentro Berezien jarduerarako emandako diru-kopuru osoa 16.883.139 euro da.

Aurreko ekitaldiarekiko aldakuntza funtsean Gizarte Segurantzako kuoten hobariaren ondoriozko laguntzen igoeraren emaitza da. Baziren 2009tik ordaindu gabeko "TC"ak, eta, 2010ean, kreditu nahikoa izanik, ordaintzeke zeuden "TC"ak ordaindu dira. 2009ko gizarte-segurantzako kuoten kostua, 2010eko aurrekontuaren kargura, 4,7 milioi euro ingurukoa da. 2010ean aurrekontuan agertzen den kostua urtariletik uztaile bitartekoa da.

2010. urtean zehar EZBetako landunak 1.250 inguru ziren. 2010erako pertsona eta urteko batez besteko soldata-kostua 6.015 euro da. Hilero gehienez 474 euro ordaindu dira langileko (lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75: 633 euro). Kendu egiten dira lan egin gabeko egunak edo, lanaldi partzialeko langileen kasuan, zati portzionala.

Laguntza gehien jasotzen duten enplegu-zentro berezietako langileen soldata-kostuaren hilero-ko justifikazioa berrikusi da: Tasubinsa, Elkarkide, Nasermo eta Aspace Fundazioa. Zentro hauen soldata-kostua kontzeptu honen diru-laguntza osaren ehuneko 77 da.

#### V.4.5. Krisiaren aurkako neurriak

2010ean aitorturiko betebeharrak garbiak 3.461.128 eurokoak dira. Kontusail hau berria da; 2009ko aurrekontuan ez zegoen halakorik.

ten laguntzen duten arlo anitzeko profesional-taldeak osatzen dituztenak.

Kontusail honetan 15.941.098 euroko exekuzioa dago. Aurreko ekitaldiaren aldean kontzeptu honen gastua ehuneko 83 igo da, guztira 2009an baino 7,2 milioi gehiago. Kontusail honetan 2010ean irekitako 16 enplegu-zentro berezietako diru-laguntzak jasotzen dira, hots, 2009ko berak.

Honakoak dira igoera horren arrazoiak:

Diru-laguntza honen helburua langabeei zuzendutako enplegarritasun ibilbideak osatzen dituzten programa integralak praktikan jartzea da, Nafarroako Gobernuak 2010eko ekitaldirako hartutako krisiaren aurkako neurrien barruan.

2010erako deialdia ekainaren 28ko 1898/2010 Ebazpenaren bidez onartu da. Erakunde onuradunak honakoak izan ahalko dira:

- Sektore artekoak diren enpresa- eta sindikatu-erakundeak.
- Irabazi-asmorik ez duten, egoitza soziala Nafarroan duten eta enplegu-programa integrale-tan esperientzia izatea frogatzen duten erakundeak.

Pertsona hartzaileak:

- 30 urte baino gutxiagokoak.
- 45 urtetik gorakoak
- Beren langabezia-prestazioa agortu dutenak.
- Iraupen luzeko langabeak.
- Etorrinak, laneratzeko arazoak dituzten emakumeak eta ezinduek.

Askotariko ekintzak uztartzen dituzten programak garatzea xede dutenak jotzen dira enplegarritasun ibilbidetzat. Ekintza horien artean sartzen dira: informazioa, orientazioa, prestakuntza, lane-koa ez den praktika eta azterketa, langabezian dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea xede dutenak. Ibilbideak 20 pertsonatik beherako taldeetan garatuko dira eta prestakuntzan emanen diren orduak ez dira 100 baino gehiago izanen.

Diru-laguntzaren zenbatekoa gehienez parte-hartzaileko eta orduko 13 euro izanen da, baina jasotako diru-kopurua ezin da izan 1.300 eurotik gorakoa parte-hartzaileko.

Diru-laguntza emateko prozesua norgehiagoka-araubidean tramitatuko da.

Erakunde onuradunak, bi hilabeteko epean, justifikazio ekonomikoa aurkeztu beharko du, honako modalitatearen batean:

- Gastuen ziurtagiriak eta memoria ekonomikoa jasotzen dituen justifikazio-kontua.

	Programa-kop.	Pertsona hartzaileak	Zenbateko justifikatua
UGT	34	510	651.495
CEN	38	577	750.100
CCOO	40	610	761.000

Hiru hartzaile nagusiek 2010ean emandako laguntza guztien ehuneko 77 hartzen dute, honako datuei jarraiki:

#### UGT

Emandako 651.495 euroko diru-laguntzaren ehuneko 100eko aurrerakina ordaintzen duen 2010eko irailaren 8ko 2334 Ebazpena.

Entitateak dokumentazioa aurkeztu du, kanpoko enpresa batek egindako auditoria-txostenarekin batera.

Justifikatutako zenbatekoa, guztira, 629.951 euro da. Erakundeak 21.543,60 euro itzuli ditu.

UGTk 21 enplegu-ibilbide garatzen ditu irailetik abendura. (15 Iruñean, 4 Tafallan, 1 Azkoienan, 4 Altsasun, 5 Lizarran eta 5 Tuteran).

#### CEN

Emandako 750.100 euroen ehuneko 100eko aurrerakina ordaintzen duen 2010eko irailaren 8ko 2333 Ebazpena.

7.701,02 euroko balioa duen 2011ko otsailaren 16ko ordainketa-gutunaren bidez, aurreratutako zenbatekoaren eta justifikatutako zenbatekoaren arteko aldea ordaindu da.

#### CCOO

Emandako 761.000 euroko zenbatekoaren ehuneko 100eko aurrerakina ordaintzen duen 2010eko irailaren 8ko 2335 Ebazpena.

Justifikatutako zenbatekoa, guztira, 564.212,27 euro da. Erakundeak 196.787,23 euro itzuli ditu.

- Auditorearen txostena jasotzen duen justifikazio-kontua.

Azalpen-memoriak (programa integralen kopurua, pertsona hartzaileak, programen kostu osoa eta edukiak) aurkeztu dituzten 15 erakundek parte hartu dute.

Guztira 2.811.769 euroko diru-laguntza banatu da 15 erakundeen artean.

Lagina aztertzeo, laguntza hauen hiru hartzaile nagusiak hautatu ditugu:

#### V.4.6. INAFRE hitzarmena

Diru-laguntza 2010eko maiatzean INAFRE fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren bidez ematen da.

Laguntza hauen onuradunak erakunde lotuak dira: UGT, CCCO eta CEN. Diru-laguntza zuzena da eta, beraz, ez dira publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak aplikatzen, aurrekontuko kontusail izenduna delako.

Diru-laguntzaren helburua Nafarroako enpleguari eta lan-merkatuari buruzko hainbat azterketa, txosten, ikerketa eta lan egitea da. Diru-laguntzaren zenbatekoa 1.125.000 euro da 2010eko jarduera finantzatzeko, honela banakatuta:

- Ikerketa-azterketak eta -proiektuak: 1.012.500 euro.

- Jardunaldi eta biltzarren antolaketa eta pres-taketa: 80.500 euro.

- Azterlanen eta ikerketen hedapena: 32.000 euro.

Azterlan eta proiektuetarako diru-laguntza aldeztu aurretik ordaintzen da, onuradunak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direlako. Emandako diru-kopurua diruz lagundutako jardueraren gastuaren ia % 100 da. Jardunaldi, biltzar eta azterlanen hedapenerako diru-laguntza egindako gastuen egiaztagiria aurkeztu baino lehen ordaintzen da.

INAFREkiko hitzarmenaren arabera 2010eko aurrekontuan aitortutako laguntzak 1.077.273 eurokoak dira, honela banatuta:

## 2010ean aitorturiko betebeharrak

	Azterlanak eta proiektuak	Kopurua	Batez besteko kostua	Jardunaldiak eta biltzarrak	Azterlanen hedapena	Aitortua, guztira
UGT	359.500	8	44.937	9.428	7.999	376.927
CCOO	343.000	8	42.875	14.636	15.279	372.915
CEN	309.498	14	22.107	17.933		327.431
Guztira	1.011.998	30	33.733	41.997	23.278	1.077.273

Azterlan eta proiektuetarako diru-laguntza: badago aldea CCOO eta CENerako aurreratutako diru-kopuruaren eta justifikatutako diru-kopuruaren artean, eta, ondorioz, bi itzulketa onartu dira, guztira 10.341 euro egiten dutenak, eta 2011ko ekitaldian ordaindu dira.

Proiektuen justifikazio ekonomikoa, hitzarmenean aurreikusten den bezala, auditoreen txostenak aurkeztuz egiten da.

Auditoriaren txostenetatik honakoa azpimarratzen dugu:

- Informazio ekonomikoa onuradun bakoitzarentzat aurkeztu da orokorrean; proiektuko kostua ez dakigu zein den.
- Agenteez zuzenean ematen diete dokumentazio ekonomikoa auditoreei. NEZen kasuan, auditoreen txostenak aurkeztu dira.
- CCOOko auditorearen txostenean NEZi gomendioak egiten zaizkio, hitzarmenean zeharkako langileen dedikazioa eta proiektuetako gastu orokorrak egiaztatzeke eskatuz.

- Hiru onuradunen artean alde handia dago proiektuko batez besteko prezioan. Onuradunen zeharkako langile-kostuaren emaitza da, neurri batean, alde hori.

Egindako proiektuen laburpena jartzen da NEZen webgunean, Enpleguaren Behatokian, eta bertan jasotzen dira helburuak, metodologia, exekuzio-urtea eta egiten duen erakundea. Edozein herritarrek eska dezake egindako azterlanen kopia bat.

Azterlan horiek, IV. eranskinean ikus daitezkeenak banakatuta, datu-base baten parte dira eta etorkizunean erabiltzeko moduan daude.

Egindako azterketetatik ondoriozta daitezkeen, orokorrean, transferentzia arrunten kapituluaren egindako kontrola egokia da eta kontabilizatutako gastuek egindako jarduera islatzen dute.

## V.5. INBERTSIOAK

Hona 2005. eta 2010. urteen arteko inbertsioen exekuzioa:

Nafarroako Enplegu Zerbitzua	Aitortutako betebeharrak 2005	Aitortutako betebeharrak 2006	Aitortutako betebeharrak 2007	Aitortutako betebeharrak 2008	Aitortutako betebeharrak 2009	Aitortutako betebeharrak 2010	Guztira	Kopuru osoaren ehunekoa
Inbertsioak	979.709	1.517.833	2.215.080	1.984.054	824.303	592.513	8.113.491	% 1,96

Ikus daitezkeen bezala, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren inbertsioen kapituluaren gastuen exekuzioaren artean garrantzia gutxien duena da.

2010ean, inbertsio nagusiak zentroetako obrei eta ekipamendu informatikoei dagozkie. Azken horiek Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoen Zuzendaritza Nagusian zentralizaturik daude.

Lodosako Agentziako berrikuntza-obrak aztertu ditugu; 237.275 euroko zenbatekoa dute eta kapituluaren exekuzioaren ehuneko 40 osatzen dute. Obra 229.368 eurotan adjudikatu zen, ehuneko 33,74ko beherapenarekin, eta 237.275 euroko exekuzioa dauka. 7.907 euroko igoera obra-unitateak gehiago igo direlako gertatu da eta ehuneko 3,45 egiten du. Hortaz, ez da beharrezkoa kontratuaren aldaketa egitea.

## V.6. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

7. kapituluaren 2005eko ekitalditik izandako bilakaera honakoa da:

	2.005	2006	2007	2008	2009	2010	Guztira
7. kapituluaren guztira	5.735.738	3.992.397	4.011.642	5.371.712	5.650.958	6.269.528	31.031.975

2010eko ekitaldian aurrekontu-betetzearen egoera honakoa izan da:

Kontusailak	Hasierako kreditua	Aldaketa	Finkatua	Aitortutako betebeharrak	%
Autonomoentzako diru-laguntzak PO EGF Nafarroa BKK inbertsioetarako	775.000	475.753	1.250.753	1.246.646	99,67
Autonomoentzako diru-laguntzak PO GF kredituen hobarirako	240.000	100.000	140.000	129.373	92,41
Enplegu-zentro berezientzako diru-laguntzak inbertsioagatik	1.620.000	0	1.620.000	1.620.000	100,00
Krisiaren aurkako neurriak. Enplegua sortu eta mantentzeko diru-laguntzak	0	1.450.000	1.450.000	1.450.000	100,00
Krisiaren aurkako neurriak-6. Auto-enplegua sustatzeko diru-laguntzak	0	800.000	800.000	132.000	16,50
Babeserako lan-sozietateentzako eta kooperatibentzako diru-laguntzak	1.260.000	0	1.260.000	897.227	71,21
Gizarte-ekonomiako enpresetan enpresa-ondorengotzarako laguntzak	200.000	0	200.000	100.133	50,07
Gizarteratzeko zentroentzako diru-laguntzak inbertsioengatik	500.000	0	500.000	496.957	99,39
Krisiaren aurkako neurriak. Enplegua sortu eta mantentzeko diru-laguntzak	0	200.000	200.000	197.192	98,60
Guztira	4.595.000	2.825.753	7.420.753	6.269.528	84,49

Aurrekontu-aldaketa adierazgarrienak krisiaren aurkako kontusailetan izan dira.

Egindako gastuaren portzentajerik altuena duten hiru kontzeptuetatik hainbat kontusail aukeratu dira aztertzeko. Kontusail horiek kapitulu honetako gastuaren ehuneko 28 dira eta honakoetan sartzen dira: "autonomoentzako diru-laguntzak inbertsioengatik", "enplegu-zentro berezientzako diru-laguntzak" eta "krisiaren aurkako neurriak, enplegua sortu eta mantentzeko diru-laguntzak".

### V.6.1. Autonomoentzako diru-laguntzak

Hautatutako laginketako elementu guztiak aurretik langabezian egon direla frogatzen duten eta autonomo edo beren konturako langile bihurtzen diren horientzako laguntzak dira.

Hautatutako laginean hamar onuradun agertzen ziren. Deialdian ezarritako baldintzak bete direla, eta, batez ere, fakturak dagokion ordainketarekin egiaztatu direla ziurtatu da. Era berean, egiaztatu denez, diru-laguntza emateko parametroak errespetatu dira, eta, beraz, inbertsioaren justifikazioa parametroa baino txikiagoa denean, diru-laguntza bat dator hautagarri gisa justifikatutako zenbatekoarekin; eta parametroa gainditzen denean, ematen eta ordaintzen den zenbatekoa azken hori da.

Egiaztapenen emaitzak egokiak izan dira eta kudeatzaileen barne-kontrola zuzena izan dela ziurtatu da.



### V.6.2. Enplegu-zentro berezientzako eta enplegua sortu eta mantentzeko diru-laguntza

Hautatutako lagina aztertu baino lehen, kontusail hau eta 2009an krisiaren aurkako neurrietatik osatzen dena beren testuinguruan jarri behar dira:

	2008	2009	2010
Enplegu-zentro berezientzako diru-laguntzak inbertsioagatik	1.615.780	1.574.000	1.620.000
Krisiaren aurkako neurriak. Lanpostuak sortu eta mantentzeko inbertsiorako diru-laguntzak		799.999	1.450.000
77. artikulua, guztira	1.615.780	2.373.999	3.070.000

Krisiaren aurkako neurrien finantziazioa handitzean igo egin dira 2010ean eskuragarri zeuden aurrekontuak, 2008an zeudenen aldean % 90 igo baita finantziazioa, hau da, aurrekontu eskuragarriaren ia bikoitza.

Enplegu-zentro berezientzako inbertsio-laguntzak kudeatzean 1998ko urriaren 18ko Ministro Aginduaren araudia betetzen da. 2008ko ekitaldira arte aipatu laguntzen finantziazioa zekarren kontusail bakarria enplegu-zentro bereziei inbertsiorako

ematen zaizkien diru-laguntzak ziren. 2012ko Nafarroa Plana eta krisiaren aurkako neurriak onartu zirenean, NEZek "krisiaren aurkako neurriak" izeneko kontusail berria gehitu zuen, aurrekontu-hornidura handiagoa eraginez.

Egindako laginketaren emaitzak egokiak dira.

Gainera, erakunde honetan dagoen enplegu-maila egiaztatu dugu, laguntzaren helburuak betetzen ote ziren egiaztatzeko. Hona hemen lortutako emaitza:

	Tasubinsa	Amimet	Gupost	Elkarkide	Aspace
Batez beste 2009	540,58	73,42	49,92	95,42	195,75
Batez beste 2010	532,75	82,83	50,75	103,83	207,00

Orokorrean, plantillak mantendu edo apur bat igo direla ikusi ahal izan da, zentro horietan inbertsiorako laguntzak emateko baldintza bera.

### V.7. DIRU-SARRERAK

2005etik 2010era bitartean diru-sarreraren aurrekontuaren egoera honakoa da:

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Itzulkinak	1.054.041	1.392.625	1.940.269	2.132.768	1.347.360	2.809.947
Estatuaren transf. arruntak	18.718.867	21.398.627	21.897.829	22.064.825	26.035.285	32.469.120
Europako funts. transf.	4.109.649,	2.057.286	5.401.589	1.524.657	1.154.184	1.690.740
Estatuaren kapital transf.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	874.613
Diru-sarrerak, guztira	23.882.557	24.848.538	29.239.687	25.722.250	28.536.829	37.844.420

Itzulkinen kontzeptuan sartzan dira emandako laguntzak itzultzeko espedienteetatik datozen diru-sarrera guztiak eta, gastuen aukeragarritasun-falta dela eta, laguntzen zati bat itzultzea eragiten duten guztiak.

Estatuaren transferentziak Lan eta Immigrazio Ministerioak autonomia erkidegoen alde egiten dituen urteroko xedapenetan jasotzen dira.

Estatuaren kapital-transferentziak CENIFERen kapital-gastua finantzatzeko hitzarmen berariazko

batean oinarritzen dira. Era berean, hitzarmen honetan CENIFERek sortzen dituen gastu arruntan finantziazioa aurreikusten da, nahiz eta 2010eko ekitaldiko finantziazioa 2011n kobratu zen, eta, beraz 2011ko diru-sarreraren aurrekontuari egotzi zitzaion.

Europako funtsen transferentziak Europako Gizarte Funtseko programa operatiboetan programatutako ekintza jakin batzuen % 50eko finantziarioekin bat datoz. Baterako finantziatio-iturri horri dagokion diru-sarreraren aurrekontuaren exe-



kuzioak, Estatuko funtsek ez bezala, ez du jarraituko gastuetako kontusailek daukaten aurrekontu-betetzearen erritmo bera, eta, beraz, ekitaldi jakin batean eskubideak aitortzen badira, aurreko ekitaldietako ekintzak justifikatzeko edo hurrengo ekitaldirako aurreikusi diren programen aurrerakinak emateko izan daiteke.

Enplegu-politika aktiboek garatzen dituzten programa eta neurriak enplegu-zerbitzu publikoen bidez kudeatzen dira, eta azken hori Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek osatzen dute. Funtsek Enplegu Gaietarako Konferentzia Sektorialean banatzen dira, eta bertan ezartzen dira enplegua sustatzeko eta enplegurako lanbideheziketarako programei dagozkien diru-laguntzen lurralde-banaketarako irizpideak. 2010-2013 aldirako, batzuk zein besteak lurralde bakoitzaren beharriaren arabera eta malgutasunez finantzatu ahal izateko diru-kopuruak onartu ziren.

Ekitaldi bakoitzerako dagokion banaketa onartu ondoren, ekitaldi bakoitzeko martxo inguruan autonomia erkidegoek aurreko ekitaldiko funtsen aplikazioa justifikatu behar dute. Ondoren, hirugarren hiruhilekoan, Ministerioak ordainketa egiten du, honako bi faktoreak kontuan hartuz: dagokion kontzesioa, eta, hala behar denean, aurreko ekitaldiko justifikazioarekin egin diren egokitzapenak.

Urteroko funtsen aplikazioa justifikatzean honako elementuak jaso behar dira:

- Programa bakoitzean aurreikusitako ekintzen justifikazioa. (Programa bakoitzaren barruan ekintzak berriz egokitzeko malgutasuna dago. Baina jardueren finantziazioa ezin da programa desberdinen artean aldatu).

- % 3 eta % 5 arteko portzentajea kudeaketa, jarraipen, ebaluazio, kontrol eta publizitatearen gastuetan.

- Eragin-adierazleen zerrenda.

Diru-sarreretan bi alderdi azpimarratu behar dira: batetik, Estatuaren transferentziek duten garrantzia, eta, bestetik, Europako diru-laguntzek duten beheranzko joera, diru-sarreraren kopuru osoak gora egin arren.

#### V.8. PROGRAMAKO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ARTEKO ERLAZIOA

Jarraian, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egingdako enplegu-politiken gastuak eta horien finantziazio-iturriak alderatuko ditugu. Horretarako, transferentzia arrunten kapituluari aitortutako betebeharrak eta aitortutako diru-sarrerak (enplegu-politika aktiboaren multzo handien arabera bildutakoak) alderatzen ditugu.

Jarduera horien finantziazioaren portzentaje bat azaltzen da, kudeaketa-gastuen gainean. Horien gastua ondasun eta zerbitzuen erosketen kapitulari egozten zaio.

Hurrengo taulan alderaketa hori ikus genezake 2005. eta 2010. urteen artean.

Aitortutako betebeharrak	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Betebeharrak, guztira, 4 kapitularia	48.647.290	47.674.760	47.108.068	49.812.678	56.929.539	62.823.874
Aitortutako eskubidea	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Enpleguaren sustapena	7.579.393	9.729.204	10.847.972	11.050.205	14.076.114	15.422.444
Enpleguko prestakuntza	10.437.918	10.804.121	9.983.226	9.689.900	10.216.571	12.183.013
Enplegu eta prestakuntzako malgutasuna	0	0	0	0	0	2.981.857
Estatuaren finantziazioa	18.017.311	20.533.325	20.831.198	20.740.105	24.292.685	30.587.314
Programen kontratazioa, kudeaketa, ebaluazioa eta kontrola	425.671	469.554	651.870	734.858	764.261	687.835
Estatuak enplegu-ekintzetan duen finantziazio garbia, guztira	17.593.645	20.065.778	20.181.335	20.007.256	23.530.433	29.901.490
Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako gastu garbia, guztira	31.053.645	27.608.982	26.926.733	29.805.422	33.399.106	32.922.385
Enplegu zentro bereziak	12.650.085	11.364.135	10.644.562	12.087.055	8.698.522	15.941.098
Gainerako ekintzak	18.403.560	16.244.847	16.282.171	17.718.367	24.700.584	16.981.287

Ekintza hauetatik zati batek Europar Batasunaren baterako finantziakzioa jaso du. Europako diru-laguntzen ezaugarriari erreparatu gero, diru-sarrerak ez daude gastuaren exekuzioarekin lotuta: Kontuan hartuta gastuen erdia finantzatzeko dela,

baterako finantziakzioa izan duten programak identifikatu ditugu eta elementu batean edo bestean EBren eskutik jasoko den zenbatekoa balioetsi dugu. Hona hemen emaitza:

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Baterako finantziakziodun gastuak, guztira. Europako funtsak	7.273.686	6.095.707	2.952.334	3.749.148	2.921.373	2.780.351
Europako baterako finantziakzio teorikoa (% 50)	3.636.843	3.047.853	1.476.167	1.874.574	1.460.687	1.390.175

Azken parametro horren arabera, NEZek gainerako ekintzetarako erabili zuen gastu osoa berreskuratzen badugu eta Europako finantziakzio

teorikoa kentzen badiogu, oso-osorik Nafarroako aurrekontuen kargura bideratzen den NEZen finantziakzio-datua eskuratuko dugu:

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Gainerako ekintzak	18.403.560	16.244.847	16.282.171	17.718.368	24.700.584	16.981.286
Europako baterako finantziakzio teorikoa	3.636.843	3.047.853	1.476.167	1.874.574	1.460.687	1.390.175
Gainerako ekintzen finantziakzio garbi teorikoa	14.766.717	13.196.994	14.806.004	15.843.794	23.239.897	15.591.111

Laburbilduz, eta Nafarroak enplegu-zentro bereziak osorik finantzatzeko dituela kontuan hartuta, enplegu-politikek honako gastua eta finantziakzioa dituzte:

Ekitaldia	Enplegu politikak, guztira (1)	Enplegu zentro bereziak (2)	Nafarroako Gobernua (3)	% (3/2)	Gainerako enplegu politikak (enplegu eta prestakuntzaren sustapena) (4=1-2)	Nafarroako Gobernua (5)	% (5/4)	Estatu funtsak (6)	% (6/4)	Europako funtsak (7)	% (7/4)
2005	48.647.290	12.650.085	12.650.085	100	35.997.205	14.766.717	41	17.593.645	49	3.636.843	10
2006	47.674.760	11.364.134	11.364.134	100	36.310.625	13.196.994	36	20.065.778	55	3.047.853	8
2007	47.108.068	10.644.562	10.644.562	100	36.463.506	14.806.004	41	20.181.335	55	1.476.167	4
2008	49.812.678	12.087.055	12.087.055	100	37.725.623	15.843.794	42	20.007.256	53	1.874.574	5
2009	56.929.539	8.698.522	8.698.522	100	48.231.017	23.239.897	48	23.530.433	49	1.460.687	3
2010	62.823.874	15.941.098	15.941.098	100	46.882.776	15.591.111	33	29.901.490	64	1.390.175	3
Total	312.996.209	71.385.456	71.385.456	100	241.610.752	97.444.517	40	131.279.937	55	12.886.299	5

Taula hori interpretatzeko, honako alderdiak hartu behar dira aintzat:

- Estatu funtsak Estatuak autonomia erkidego guztietan ezarritako programa eta neurriak garatzeko finantziakzioaren % 100 dira.
- Europako funtsak dagozkien programa operatiboetan onartutako ekintzak gauzatzeko finantziakzioaren % 50 dira.

Hau da, Nafarroako Gobernuak enplegu-zentro berezien ehuneko 100 finantzatzeko du eta gastua-

ren gainerakoaren finantziakzioa honela banatzen da: ehuneko 40 Nafarroako Gobernuarentzat, ehuneko 55 Estatuak emana eta gainerako ehuneko 5a Europako funtsetatik datorrena.

Estatuak finantzatzeko edo Europak batera finantzatzeko ez duena da Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enplegu-politika aktiboaren barruan jarduerak garatzeko bideratzen duena.

Gastu osoa aztertzen badugu, finantziakzioa honakoa litzateke:

	Finantziazioa	Portzentajea
Nafarroa	168.829.973	% 54
Estatua	131.279.937	% 42
Europa	12.886.299	% 4
Gastua, guztira	312.996.209	% 100

#### V.9. "ORDEZKARITASUN HANDIENeko ENPRESA- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEAK" ADIERAZPENAREN GAINEAN EGIN BEHAR DEN INTERPRETAZIOAREN LEGEZKO ALDERDIAK.

Egindako lanean Nafarroako Kontuen Ganberak honako gaiak jorratu nahi izan ditu, ikuspegi juridikotik:

- Araudia eta jurisprudentzia kontua hartuta, "ordezkaritasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeak" adierazpenaren gainean egin behar den interpretazioa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gobernu-organoetan duten partaidetzaren eta hark ematen dituen laguntzen hartzaile izatearen ondoretarako.

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutuen azterketa, batetik enpresa- eta sindikatu-erakundeek bere funtzionamenduan duten partaidetza antolatzen duen entitate gisa, eta, bestetik, erakunde horiek partaide diren bere gobernu-organoen bidez, diru-laguntzak eta laguntzak ematen dituen erakunde gisa

- TAS/718/2008 Agindua garatzen duen eta hirugarren oinarrian onuradunak ordezkariatasun handieneko erakundeetara mugatzen dituen abenduaren 16ko 3821/2010 Ebazpenaren bidez araututako deialdia araudira egokitzea.

Ganbera honek egindako azterketari jarraiki, honakoa ondoriozta dezakegu:

**1.** Autonomia erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoetako ordezkari-tasun-organoko aholku-emaileetan (Nafarroan NEZen) ordezkari-tasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen partaidetza hirualdeko eta paritarioa Espainiako Konstituzioan bertan oinarritzen da eta Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen, Sindikatu Askatasunari buruzko Lege Organikoaren (SALO) eta Langileen Estatutuko (LE) seigarren xedapen gehigarriaren ondoriozkoa da, presentzia horren bitartez antolatzen baitituzte langileek erakundeetan eta horien funtzionamenduan dituzten laguntza eta ordezkari-tasun. Horren harira, Konstituzio Auzitegiak, 53/1982 Epaian, Nazioarteko Lan Erakundearen 1948ko uztailaren 9ko Hitzarmenean aurreikusitakoren arabera, hartutako erabakia objektiboa eta arrazoizkoa dela aitortzen du INEMi dagokio-

nez, NEZen antzeko partaidetza-egitura hirualdeko eta paritarioa duelarik.

**2.** Gizarte-solaskide hauen partaidetza antolatzeko modua autonomia erkidego bakoitzak ezartzen duen horretara irekita egonen da, bere antolakuntzarako gaitasunari jarraiki. SALOren eta LEko 6. xedapen gehigarriaren arabera, ordezkari-tasun handieneko sindikatu eta enpresa-elkarteak nahitaez egon behar dira organo horietan sartuta. Autonomia erkidegoetan nagusitzen den irizpidea hau da: autonomia erkidegoetako enplegu-zerbitzuetako ordezkari-tasun handiena duten gizarte-solaskideen presentzia izatea, hirualdekoa, eta, kasu batzuetan, paritarioa, eta erabakiak hartzeko modua aldatu ahal izatea. Horren harira esan beharra dugu indarreko Enplegu Legeko 18. artikuluari jarraiki partaidetza hori ordezkari-tasun-organoko aholku-emaileetan egiten dela.

**3.** NEZen estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, ordezkari-tasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeek haren gobernu-organoetan parte hartuko dute (Kontseiluan eta Batzorde Iraunkorrean), partaidetza hirualdeko eta paritarioarekin. Halaber, organo horietan erabakiak hartzeko, alderdiak aho batez egon behar dira ados, horietako bakoitzaren gehiengo osoa ezarri ondoren. Ondorioz, praktikan, NEZek formalizatzen dituen lankidetzak-hitzarmenak eta oinarrien onarpean parte hartzen duten gizarte-solaskideak, adibidez enplegurako lanbide-heziketaren diru-laguntzen eremuan, horien onuradun ere izan ahalko dira.

**4.** Konstituzio Auzitegiak besteak beste 147/2001 Epaian ezarritako doktrinaren arabera, Auzitegi Gorenak hainbat adierazpenetan jaso duen bezala, Konstituzioari jarraiki bidezkoa da ordezkari-tasun handieneko gizarte-solaskideei soilik aitortzea erakunde-ordezkari-tasun-organoko eskubidea. Edonola ere, sindikatuen askatasunaren eskubidearen parte den doktrina honetan, era berean, honako aukera ezartzen da: gehiengorik ez duten baina ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte-solaskideek langileen prestakuntzarako diru-laguntzak eskuratu ditzakete.

5. NEZen zuzendari kudeatzailearen abenduaren 16ko 3821/2010 Ebazpenak hitzarmen bidez sektore arteko prestakuntza-planak gauzatzeko diru-laguntza publikoak emateko deialdia onartzen du, eta haren hirugarren oinarriaren arabera, Estatuan eta Foru Komunitatearen eremuan ordezkari-tasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeek diru-laguntzen eskatzaile eta onuradun izan ahalko dira. Ebazpen honek aldeko txosten juridikoa dauka eta Enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duen 395/2007 Errege Dekretuan eta berau garatzen duen Gizarte Gailetako Ministerioaren martxoaren 7ko 718/2008 TAS Aginduan xedatzen dena aplikatzen dute Nafarroan. Ondorioz, gai hau arautzen duen Estatuko esparru juridikora egokitzen da.

Honelako diru-laguntzak eskuratzeko mugei dagokienez, hainbat errekurtso planteatu dira jurisdikzio-organoetan. Jurisprudentzia gehiena horien balizko hartzaileen lehia hedatzearen alde dago.

6. Lan-merkatua berritzeko premiazko neurri buruzko otsailaren 10eko 3/2012 Legegintzako Errege Dekretuak 395/2007 Errege Dekretuko 24. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiak aldatu ditu. Hala, behar bezala akreditatu eta inskribatutako prestakuntza-erakunde eta -zentroei lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntza-planak gauzatzeko aukera eman die, gainerakoetan Errege Dekretuko 24. artikuluko edukia mantenduz, baina arau hori lege-mailara igoz. Artikulu horren arabera, lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntza-planak bi motatakoak izan ahalko dira: sektore artekoak eta sektorekoak. Lehenengoak ordezkari-tasun handieneko enpresa- eta sindikatu-erakundeekin egindako hitzarmenen bidez gauzatu dira eta bigarrenak ordezkari-ekin eta dagokien sektorean ordezkari-tasun handiena dutenekin. Adierazi den bezala, behar bezala akreditatutako prestakuntza-zentro eta -erakundeek ere parte hartzeko aukera dute.

Era berean, abuztuaren 2ko 1716/2012 ESS Aginduak 718/2008 TAS Agindua aldatu du onuradunen baldintzei dagokienez, eta, horrek, aldi berean, Foru Komunitatea behartu du gai horretako bere araudia egokitzera. Aipatutako 1726/2012 Aginduaren zioen azalpenean esaten da gardentasunaren, lehiaren eta ebaluazioaren printzipioak indartu nahi dituela enplegurako prestakuntza-ekintzen kudeaketan, eta, horretarako, aurreikusten du laguntza horien onuradun izan daitezkeela, baita ere, behar bezala akreditatutako prestakuntza-zentro eta erakundeak, aurreko lerrokadan ezarritakoarekin bat.

Edonola ere, diru-laguntzen banaketari dagokienez lege-maila igoz gero, horien hartzaileen harira gatazkak sortu ahalko dira eta ezinen dira planteatu ohiko auzitegietan, Konstituzio Auzitegira jotzea nahitaezkoa izanen baita.

Laburbilduz, ordezkari-tasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen interpretazioari dagokionez, Ganbera honek honakoa uste du:

- Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Estatuko araudia bete du enplegurako lanbide-heziketaren azpisistemaren eremuan diru-laguntzak emateko orduan, Foru Komunitatearen eremura egokituz.

- Abuztuaren 2ko ESS 1726/2012 Agindua onartu ondoren, Foru Komunitateak bere araudia egokitu beharko du eta landunei, zentroeiei eta behar bezala akreditatu eta inskribatutako prestakuntza-erakundeei zuzendutako prestakuntza-planak egiten parte hartzeko aukera aurreikusi beharko du.

- Ekidin beharko litzateke entitate batek Nafarroako Enplegu Zerbitzua bezalako erakunde bateko zuzendaritza organoetan dagoen aldi berean –lankidetzat hitzarmenatarako aurretiazko onespena ematen dute– horien onuradun izateko aukera, enplegurako lanbide heziketako diru-laguntzen esparruan.

## **VI. UGTK, CCOOK ETA CENek 2008tik NAFARROAKO AURREKONTUETATIK JASOTAKO FUNTSAK**

Sarreran adierazi den bezala, 2011ko azaroan eta abenduan bi parlamentu-taldeek txosten bana eskatu zuten, ia helburu berarekin: CCOOK, UGTK eta CENek funts publikoen finantziazioarekin egindako jarduerak eta horien eraginkortasuna aztertzea.

Horretarako, egindako lana hedatu dugu; izan ere, erakunde horiek jasotzen dituzten funts gehienak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntzara bideratzen dituen funtsetatik datoz, zerbitzu bereko eta gainerako departamentuetako beste programa batzuen datuekin.

Hurrengo taulan 2008-2010 aldirako eskuratu ditugun datuak ikus daitezke. Gure lana egin gunean unean ez zeuden 2011ko ekitalditako datuak eskuragarri.

Azpimarratu beharra dugu erakunde horiek jasotako funtsak direla eta oso kontzeptu desberdinei dagozkiela: prestakuntza-ekintzak, askotariko hitzarmenak, hainbat konpentsazio, ordezkagari-tasunaren araberrako transferentziak eta abar.

		INAFREkiko hitzarmena:			
		NEZ	Enplegu Behatokia	Sailak	Guztira
UGT	2008	4.450.666	438.403	1.283.966	6.173.035
	2009	5.729.289	398.776	1.292.657	7.420.722
	2010	5.995.070	376.927	1.482.672	7.854.669
	2008-2010	16.175.025	1.214.106	4.059.295	21.448.426
CCOO	2008	4.430.717	426.940	1.104.188	5.961.845
	2009	5.596.584	390.729	1.199.834	7.187.147
	2010	5.950.471	372.915	1.414.826	7.738.212
	2008-2010	15.977.772	1.190.584	3.718.848	20.887.204
CEN	2008	4.284.926	324.096	902.487	5.511.509
	2009	4.940.189	368.770	916.357	6.225.316
	2010	5.205.743	327.431	980.028	6.513.202
	2008-2010	14.430.858	1.020.297	2.798.872	18.250.027
ANAFE	2008			227.074	227.074
	2009			295.168	295.168
	2010			285.789	285.789
	2008-2010			808.031	808.031
Guztira		46.583.655	3.424.987	11.385.046	61.393.688

NEZen zenbatekoei buruzko datuen banaketa xehakatuagoa ikus daiteke jarraian dagoen taulan. Bertan, diru-laguntzak jasotzen dituzten kontzeptuak urteen eta hartzaileen arabera aurkeztu dira:

Konzeptua	CEN 2008	UGT 2008	CCOO 2008	CEN 2009	UGT 2009	CCOO 2009	CEN 2010	UGT 2010	CCOO 2010	Guztira
Enplegu-planen jarraipen-batzordearentzako konpentsazioa	52.781	52.781	52.781	60.000	60.000	60.000	60.000	60.000	60.000	518.343
Krisiaren aurkako neurriak. Kontratazioa sustatzeko diru-laguntzak									10.000	10.000
UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinei buruz		90.125	90.125		180.000	180.000		142.000	142.000	824.250
Administrazio publikoen kontratazioetarako diru-laguntzak				13.163			37.669			50.833
Hitzarmena UGNA, UGT eta CCOOren enplegu-programetarako		105.376	105.376		110.355	110.355		110.355	110.355	652.172
Hitzarmena UGT, CCOO eta CENekin, egonkortasun-programetarako	140.000	338.245	338.245	140.000	410.000	410.000	70.000	410.000	380.000	2.636.490
Hitzarmena UGT eta CCOOekin, prestakuntza- eta laneratze- ekintzetarako		373.375	373.375		300.000	300.000		240.000	240.000	1.826.750
Enplegu-programa esperimentalak					124.800			124.800		249.600
Administrazio publikoen kontratazioetarako diru-laguntzak	432.636			400.000			400.000			1.232.636
Hitzarmena UGT eta CCOOekin, berdintasun- eta bateragarritasun-programetarako		176.590	176.590		180.000	180.000		180.000	170.000	1.063.181
Hitzarmena SNE eta CENren artean, programa ekintzaileetarako				150.000			127.500			277.500
Langileen enplegurako prestakuntza-ekintzak				170.363	147.828	174.528				492.719
Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu-ibilbideetarako diru-laguntzak							750.100	651.495	761.000	2.162.595
INAFRE hitzarmena. Etengabeko prestakuntzako ekintzak	499.440	269.400	280.000							1.048.840
Langileentzako enplegurako prestakuntza-ekintzak	840.910	480.000	468.795				175.032	173.160	174.756	2.312.653
Prestakuntzarako ekintza osagarriak		19.000			34.836					53.836
ELH lehenasunez langileentzat.	1.733.409	1.643.755	1.643.411	2.970.862	2.898.495	2.899.550	2.985.098	2.903.260	2.902.359	22.580.200
INAFRE hitzarmena. Etengabeko prestakuntzako ekintzak	554.750			652.500			550.344			1.757.594
Konpentsazioa INAFREri plangintzan parte hartzeagatik	31.000	31.000	31.000	50.000	50.000	50.000	50.000	50.000	50.000	393.000
Krisiaren aurkako neurriak. Prestakuntza kualifikatzaileetarako diru-laguntza				333.300	282.975	282.150				898.425
Hitzarmena UGT eta CCOOekin, laneratze orientazio-ekintzetarako		871.018	871.018		950.000	950.000		950.000	950.000	5.542.037
Guztira	4.284.926	4.450.666	4.430.717	4.940.189	5.729.289	5.596.583	5.205.743	5.995.070	5.950.470	46.583.655

Departamentuei dagozkien zenbatekoak hona-koak dira:

## 8. Departamentua. Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena.

Kontzeptua	CEN 2008	UGT 2008	CCOO 2008	CEN 2009	UGT 2009	CCOO 2009	CEN 2010	UGT 2010	CCOO 2010	Guztira
0011097620090678 Diru-lag. IKTak					7.331					7.331
Azalpen-jardunaldia Manunet 2008.01.28	266									266
Espte IK12353 Diru-lag. Lehiakortasuna				5.089						5.089
Transferentziak Zentral Sindikalei beren ordezkartzaren arabera		118.346	93.003		103.713	82.182		103.497	83.764	817.007
Ingurumen-ordezkarier diru-laguntzak							232.500			
Konpentsazioa Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik	137.238	58.816	39.211	113.715	48.735	32.490	113.715	48.735	32.490	625.144
Konpentsazioa hauteskunde-prozesu sindikalaren Jarraipen Batzordeko sindikatuei		26.326	26.326		23.025	23.025		23.025	23.025	144.752
Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin delegatuentzat, arriskuei aurrea hartzeko	264.559	257.966	264.559	290.000	265.000	265.000	132.500	265.000	265.000	2.269.584
Konpentsazioa ezbeharrak kontrolatzeko batzordea osatzen duten erakundeei	57.961	55.958	57.961	58.333	58.333	58.333	58.333	58.333	58.333	521.881
Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan-arriskuei aurrea hartzeko programetarako	287.598	278.260	279.599	290.000	290.000	290.000	290.000	290.000	290.000	2.585.457
Lan Gatazkak Konpontzeko Auzitegiaren ordainketa	153.425	80.750	80.750	159.220	84.930	84.930	152.380	79.230	79.230	954.845
Guztira	901.047	876.423	841.409	916.357	881.067	835.961	979.428	867.820	831.843	7.931.356

## B. Departamentua. Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak.

Kontzeptua	ANAFE(*) 2008	UGT 2008	CCOO 2008	ANAFE 2009	UGT 2009	CCOO 2009	ANAFE 2010	UGT 2010	CCOO 2010	Guztira
Gazteen artean lan-eskubideak hedatzeko programa								18.750	18.750	37.500
Lan Ministerioarekiko hitzarmenaren ondoriozko jarduerak	84.993	49.538								134.531
Hitzarmenak UGT eta CCOOrekin, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko		150.000	150.000							300.000
Lan Ministerioarekiko hitzarmenaren ondoriozko jarduerak				65.911	56.590		55.385	37.762		215.647
Hitzarmenak UGT eta CCOOrekin, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko					175.000	175.000		175.000	175.000	700.000
Hitzarmenak UGT eta CCOOrekin, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko					125.000	125.000		125.000	125.000	500.000
Bilera, biltzar eta ikastaroen antolaketa	4.050									4.050
Lan Ministerioarekiko hitzarmenaren ondoriozko jarduerak	138.031									138.031
Lan Ministerioarekiko hitzarmenaren ondoriozko jarduerak				229.258			230.404			459.662
Guztira	227.074	199.538	150.000	295.168	356.590	300.000	285.789	356.512	318.750	2.489.421

(\*) ANAFE CCOOrekin lotutako fundazioa da eta bere helburua Nafarroan bizi diren etorkinak gizarteratu eta laneratzea da.



Kontzeptua		CEN 2008	UGT 2008	CCOO 2008	CEN 2009	UGT 2009	CCOO 2009	CEN 2010	UGT 2010	CCOO 2010	Guztira
Diru-laguntza globala 3. helburua EGF	NAFK/ CFNA		93.669								93.669
Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, Zerbitzuen Legea garatzeko	GONI/ INBS							198.778	200.000		398.778
UGT eta CCOO sindikatu ordezkarien diru-laguntza	GONI/ INBS		50.000	50.000							100.000
Emakume-elkarteei eta bestelako erakundeei transferentziak	ENI/ INM		3080	1.785							4.865
Gazte-erakundeek ekipamendua	GNI/ INJ		1.350								1.350
Gazte-elkarteen programetarako diru- laguntzak	GNI/ INJ		7.816					5.004			12.820
Gazteentzako lan-orientazioko programa	GNI/ INJ		51.250	51.250							102.500
Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, gazteei lan-orientazioa emateko	GNI/ INJ					55.000	55.000	54.198	55.000		219.198
Guztira			207.165	103.035	0	55.000	55.000	0	257.980	255.000	933.180

#### 4. Departamentua. Hezkuntza

Kontzeptua	CEN 2008	UGT 2008	CCOO 2008	CEN 2009	UGT 2009	CCOO 2009	CEN 2010	UGT 2010	CCOO 2010	Guztira
Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte-hartzea	1.440	840	9.744			8.874	600	360	9.234	31.091

Ikus daitekeen bezala, gastu gehiena NEZek kudeatzen dituen eta aurreko ataletan aztertu diren programena da eta Nafarroako Gobernu departamentuetatik jasotakoaren informazioa aurreko tauletan jaso da.

Gastuaren eraginkortasuna baloratzeko hurrengo atalera joko dugu, bertan aztertu baitugu NEZen jarduera.

#### VII. AZTERKETA OPERATIBOA

NEZek hiru aurrekontu-programa dauka: Zerbitzu Orokorrena, Enpleguaren Sustapenarena eta Prestakuntza eta Bitartekaritzarena. I. eranskinean programa hauen adierazleen bilakaera ikus daiteke.

Aurrekontu-adierazle gehienak jarduerenak dira (espediente-kopurua, baliabideak eta abar) eta ez daude aurrekontu-betetzearekin lotuta.

Baldintza horien ondorioz, eta kontuan hartuta azken eragina baloratzeko helburu eta adierazleen haztapen-falta, eta, kasu batzuetan, adierazleak zehaztu eta erabiltzeko heterogeneotasuna, ezin da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerari buruzko balorazio orokorrik egin.

Enplegu Plana dela-eta, "Enplegu-planaren jarraipen-txostena" izeneko agiri bat dago eta haren alderdi nagusiak II. eranskinean laburbildu

ditugu, NEZen jarduera baloratzeko duten interesatit.

ondoriozta dezakegunez, Enplegu Planak aurrekontu-programek baino adierazle osatuagoak ditu, oinarritzko adierazleak, lan-merkatuarekin lotutakoak eta exekuzio-adierazleak barne hartzen baititu.

Nabarmentzekoa da Enplegu Planak ez dituela aurrekontu-programen adierazleak erabiltzen bere balorazioan, eredu propioa egin baitu.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak "okupagarritasunari" buruzko taulak egin ditu, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuetan oinarrituta. Batean Nafarroako eta Espainiako egoerak alderatzen dira 2008ko ekainaren eta 2010eko martxoaren artean, eta bestean autonomia erkidegoek 2010eko lehenengo hiruhilekoan duten egoera. Bietan nabarmentzen da Nafarroako egoera.

#### AZKEN GOGOETA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerak lau lan-arlo dituela esan dezakegu:

- Langile eta enplegu-emaileentzako arreta. Langileei enplegu agentzietan ematen zaien laguntza da, batez ere enplegu-eskatzaileei eta enplegu-emaileei, enpresei, hainbat erakunderi, sektore publikoari... ematen zaiena. Administrazio prozesuak kudeatzen dira, langabeen erregistroa-

ren mantentzeari, kontratuei, lan-eskaintzei eta abarrekoiei dagokienez.

- Eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekarritza. Zerbitzuan gutxi erabiltzen den jarduera da. Berez enplegu-agentziak lotzen du eskaintza eskariarekin eta haren zerbitzuak doakoak dira.

- Enpleguaren sustapena. Baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten taldeen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzearekin eta gizarte-ekonomia sustatzearekin lotutako zereginak ditu.

- Prestakuntza. Landun edo langabeentzako prestakuntza-jarduera osoa barne hartzen du, beren egungo nahiz etorkizuneko lanpostuetarako trebakuntza handiagoa izan dezaten.

- Lanerako orientazioa. Langileei arreta pertsonalizatua ematen zaie, batez ere lana eskatzen dutenei, laneratzeko ibilbide pertsonalak ezarriz.

II. atalean azaltzen genuenez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez du enplegurik sortzen, "enplegarritasun" baldintzak baizik.

Horren harira, logikoa da egungoa bezalako garaietan, krisi ekonomikoa izanik eta langabezia gorantz doala kontuan harturik, Zerbitzuaren funtsak igotzea, eta, ondorioz, bere prestakuntza-jarduera ere. Izan ere, hori da enplegu-sorkuntzan eragiten duten aldagai anitzetako bat eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak haren gainean jardun dezake.

Enpleguan eta langabezian, noski, hainbat aldagaik dute eragina eta, ondorioz, zaila da horietako bat soilik jorratuz irtenbide bat lortzea.

Argi dago pertsonen prestakuntza lanpostuaren baldintzetara egokitzen ote den neurtzea dela aldagaietako bat, baina, era berean, egia da enpresarik gabe ez dagoela enplegurik, eta, gainera, enpresa-itxaropenak, enpresek kredituak

eskuratzeko duten aukera, inguru fisikoaren eta esparru juridikoaren baldintzak, eta, batez ere, enpresa-onurak bezalako alderdiak prestakuntza bera bezain garrantzitsuak edo are garrantzitsua-goak direla.

Ildo horretatik, prestakuntzaren zikloari derrigorrezko hezkuntzan ematen zaio hasiera, gero derrigorrezkoaren ondokoan (lanbide-heziketa eta unibertsitatea) jarraitzen da, eta, azkenik, langarai beharrezkoa den etengabeko prestakuntzarekin osatzen da. Horren harira, ikastetxe arautuekin lankidetzan eta koordinazioan aritzea garrantzitsua da, erakunde publikoen artean sor daitezkeen sinergiak profitatzeko.

Azken hilabeteetan prestakuntza-ikastaroen ordez profesionaltasun-ziurtagiriak gailentzen ari dira. Ziurtagiri horiek gaitasun profesionaleko tituluak dira eta profesional batek arlo jakin batean izan behar dituen ezagutzak errazteko ikastaroak egin ondoren ematen dira. Hau da, langile batek lanbide-heziketako tituluaren antzekoa lortzen du prestakuntza-ikastaro hauen bidez.

Amaitzeko, aipatzekoa da 2005-2010 aldian enplegu-polituketara bideratutako zenbatekoaren ia laurden bat enplegu-zentro berezietarako izan dela, eta, beraz, laguntza hori gabe lana lortzeko askoz aukera gutxiago izanen zuen talde bat laneratzea lortu dela.

Era berean, kontuan hartu behar da langabeen prestakuntzaren bidez eta kasu batzuetan ikasle parte-hartzaileek eskuratzen dituzten laguntzen bidez lortzen den gizarte-eragina.

Txosten hau eman da indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## 1. ERANSKINA. AURREKONTU-PROGRAMEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

## 880. programa. Zerbitzu Orokorrak

Helburuak	Ekintzak	Adierazleak	2006		2007		2008		2009		2010	
			Aurrei- kus- zioa pena	Exeku- zioa	Aurrei- kus- zioa pena	Exeku- zioa	Aurrei- kus- zioa pena	Exeku- zioa	Aurrei- kus- zioa pena	Exeku- zioa	Aurrei- kus- zioa pena	
	Ekintzak	Adierazleak										
	Administrazio-kontratazioaren tramitazioa eta jarraipena											
1. Modernizazioarekin lotutako ekintzak bereganatu eta bete-tzea, bitarteko materialak emanez	Aldi baterako langileen kontratazioaren kudeaketa Ondasun arrunten eta inbentarioen sar daitekeen ekipamendu teknikoaren erosketa Modernizazioarekin lotutako inbentarioen exekuzioa Aurrekontu-beteitzearen eta kreditu eskuragarrien kontrola											
2. Enpleguarekin lotutako proiektuak garatzen dituen erakunde pribatu eta publikoekin sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmenak diseinatu, egin eta proposatzea			10		6		5		4			4
3. Nafarroako Enplegu Planean sartutako hainbat ekintza edo proiektuz arduratzea		Hitzarmen-kopurua								7		9
4. Europar Batasunaren baterako finantzazioa duten proiektuetan parte hartzea		Enplegua sortzeko proiektuak, ikastaroak eta ekintzak diruz laguntzea					5					
		Eskualde anitzetako programen deialdia					2		2			3
		Bestelako proiektu europarrak					3		3			2
		Prestakuntzarako aplikazioen kop.									2	4
		Unitate didaktikoen kop.									25	25
5. Hizkuntza-trebakuntzarako eredia garatzea, helburu profesionalekin, enplegurako lanbide azpistemara eskualda datekeena eta Nafarroako langileen hizkuntza-gaitasunak sustatzen dituena		Hizkuntza-trebatzaileak trebatzeko programak									1	1
		Hizkuntza-gaitasuneko zerbitzuak ematen dituzten enpresen sektorearen espezializazioa sustatzea									1	5
		Enplegurako hizkuntza-prestakuntzako ikastaro pilotuen kop.									5	21

## 881. programa. Enpleguaren sustapena.

Helburuak	Ekintzak	2006		2007		2008		2009		2010	
		Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa
1. Administrazio publikoaren enplegua sustatzea	Enplegu berrien sorrera indartzea	415	430	435	508	634	565	570	570	570	
	Udalek gizarte-intereseko lanetarako kontratatzea	31	35	38	39	41	46	45	45	45	
2. Baztertuta dauden edo hain egoteko arriskua duten taldeen laneratzea babestea	Enplegurako eta tokiko garapenerako agenteen kontratazioak	35	35	34	41	38	36	38	38	32	
	Tokiko garapena sustatzea, tokiko erakundeentzako diru-laguntzen bidez	6	3	3	5	5	6	5	5	4	
3. Nafarroako Enplegu Planean jasotako proiektu eta ekintza jakin batzuez arduratzea	E-E enpresen espedienteak	6	6	6	0	5	3	3	3	1	
	Laneratzeko zentroen espedienteak, zailtasun handidun pertsonak kontratatzeko	294	295	304	295	302	308	298	284	284	
4. EQUAL Europako ekimeneko proiektuetan eta EBren funtsen baterako finantziaketa duten besteak beste programetan parte hartzea	Laneratzeko eta gizarteratze zentroen espedienteak, inbertsioengaitik	7	8	6	8	6	10	8	22	22	
	Baztertuta dauden pertsonen laneratzea diruz laguntzea	294	295	304	295	302	308	298	284	284	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Etorikinen prestakuntza eta laneratzea diruz laguntzea, UGI eta CCOOren sinatutako lan-kideiza-hitzarmenaren bidez	58	56	52	58	45	73	55	50	50	
	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
3. Nafarroako Enplegu Planean jasotako proiektu eta ekintza jakin batzuez arduratzea	Laneratzeko orientazio pertsonalizatua diruz laguntzea	10	10	10	10	10	10	10	10	10	
	Enplegua sortzeko proiektuak, ekintzaileen ikastaroak, jarduerak eta ekintzaileak diruz laguntzea	6	4	6	4	6	4	6	4	4	
4. EQUAL Europako ekimeneko proiektuetan eta EBren funtsen baterako finantziaketa duten besteak beste programetan parte hartzea	Emakumeak hurbileko zerbitzuetan laneratzeke espedienteak	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
	Gizarteratzeke ekintza pertsonalizatuen espedienteak	10	10	10	10	10	10	10	10	10	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Sektore enplegu-sortzaile berriak garatzeko espedienteak	6	4	6	4	6	4	6	4	4	
	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
3. Nafarroako Enplegu Planean jasotako proiektu eta ekintza jakin batzuez arduratzea	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
4. EQUAL Europako ekimeneko proiektuetan eta EBren funtsen baterako finantziaketa duten besteak beste programetan parte hartzea	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
	Emakumeen laneratzea diruz laguntzea	15	24	24	8	12	16	12	5	5	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Bestelako proiektu europarrak	3	2	3	2	3	2	3	2	2	
	Bestelako proiektu europarrak	3	2	3	2	3	2	3	2	2	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Enpresa, kooperatiba eta lan-sozietateetan sartzea, lanpostuak sortzeko	100	100	100	68	70	48	70	70	70	
	Enpresa, kooperatiba eta lan-sozietateetan sartzea, lanpostuak sortzeko	100	100	100	68	70	48	70	70	70	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Kooperatiba eta lan-sozietateentzako aktibo finkoetatiko inbertsioak	110	115	150	140	120	106	120	108	108	
	Kooperatiba eta lan-sozietateentzako aktibo finkoetatiko inbertsioak	110	115	150	140	120	106	120	108	108	
5. Gizarte-ekonomia sustatzea	Langile bazkidearen izaera eskuratzeko kostuaren finantziaketa	10	57	10	57	30	36	30	26	26	
	Langile bazkidearen izaera eskuratzeko kostuaren finantziaketa	10	57	10	57	30	36	30	26	26	

Helburuak	Ekinzak	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa
	Adierazleak								
	Ohiko enpresek minusbaliotasundunak kontratazea	110	110	110	128	110	110	71	100
6. Ezintasunak dituzten pertsonen enplegua babestea	Enplegu-zentro berezientzako transferentziak, eragketa aruntetarako enplegu-zentro berezientzako eta minusbaliotasundun autonomoentzako diru-laguntzak inbertsioetarako espedienteak	300	300	300	381	300	300	245	300
	Autonomoer iraupen-errematarako emandako diru-laguntzen espedienteak	110	140	25	1	30	25	30	25
7. Auto-enplegua sustatzea	Langabaziaren kapitalizazioaren bidez enplegua sortzeko espedienteak	100	100	100	59	80	123	80	83
	Autonomoer inbertsioetarako emandako diru-laguntzen espedienteak	250	300	300	273	300	196	300	202
	Autonomoer emandako diru-laguntzak enplegua babesleko praktiketako tituludunen kontratazioak	200	200	180	62	180	30	100	33
8. Titulatu berr diren pertsonen kontratazioa bultzatzea	Praktiketan dauden tituludunak kontratazeko diru-laguntzak	50	20	20	2	0	2	0	0
	Tailer-kopurua			3	0				
9. Lanbide-heziketari dagokionean EGFren finantzazioa duten programa proiektuak jarraitzea	Tailer-erakundeak eta lanbide-erakundeak			9	11	9	14	11	13
10. Enpleguaren gaitasun programaren esperimentatzea	Enplegu-tailerrek			1	3	1	6	4	9
	Proiektu-kopurua			4	0	4	8	4	8
11. Enpleguaren eskaintza eta eskariaren arteko biltzeak parte-hartze handiagoa lortzea	Enplegu-erakunde berrak eguneratze eta enplegu-erakunde berrak eguneratzearen bidez	90.000							
	Lan-erakunde berrak eguneratzearen bidez	86.500							
	Lan-erakunde berrak eguneratzearen bidez	3.350							
	Lan-erakunde berrak eguneratzearen bidez	6.600							
	Lan-erakunde berrak eguneratzearen bidez								
	Lan-erakunde berrak eguneratzearen bidez								
12. 2005-2007 Enplegu Planaren eta Enplegurako Ekinza Plan Nazionalaren ezarritako helburuak eta zuzentzarauk betetzea	Berau eskatzen duen bakoitzak laneratzeko orientazioa eta jarraipena izatea lortzea	8.000							
	Informazio-ekintza horiek eskaintza egiten dituzten erakunde eta instituzioak identifikatzea								
13. Internet bidezko kontratu-erregistroaren aurkezpena hobetzea, egun % 40an dagoena	Applikazio hiru oraindik berri erabiltzen ez duten balizko erabiltzaileen artean hedatzea	220.000							
	Erabiltzaileentzako arreta murrinduta eta hobetzea enplegu-bulegoetan	130.000							
	Erabiltzaileentzako arreta murrinduta eta hobetzea enplegu-bulegoetan	90.000							
14. EURES sarea sustatzea	Foru Komunitateko eskalariak Europako merkatura hurbiltzea	465							
	EURES zerbitzuak araututako pertsonak								

## 882. programa. Prestakuntza eta Bitartekaritza

Helburuak	Ekintzak	2006		2007		2008		2009		2010	
		Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa	Aurreikuspena	Exekuzioa
1. Langabeen prestakuntza	Langabeentzako lanbide-heziketako ikastaroak, EGFK besterik batera finantzatuta	30		30	30	30	33				
	Langabeentzako lanbide-heziketako ikastaroak, biarteko proiektuak	60		60	50	44					
	Langabeentzako Prestakuntza eta Laneratze Profesionalerako Plan Nazionalako ikastaroak	340		340	340	444	441	429	480	479	
	Lanbide-talderen ikastaroak	3		4							
	Lanlegi-eskolak eta lanbide-etxeak	8		8							
	Enplegu-tailerak	5		6							
	Langile aktiboaren etengabeko prestakuntzarako ikastaroak, EGFK besterik batera finantzatuta	900		439	455	494	455				40
	Prestakuntzaren sektore arteko Ekintzak, EGFK besterik batera finantzatuta hitzarmen bidez										1.387
	Eitengabeko Prestakuntzarako Plan Nazionalako ikastaroak, EGFK besterik batera finantzatuta	700		890	875	497	875	1.605			
	Lan-arriksuetan aurrea hartzeko ikastaroak	32		32	66	57	66	54	55	46	
2. Langile aktiboaren prestakuntza	Prestakuntza-beharrizanen diagnostikoak	1									
	Plan-kop.	150		80	50	36	50	47	49	40	
	Enpresen prestakuntza planak	1.100		600	250	129	250	169	170	90	
	Hitzarmenak hainbat erakunderekin, prestakuntza emateko	1		1	2	2	2	2	2	1	
	ELH-lehentasunez langabeak										440
	ELH-enplegu eta talde berezien konpromisoa										40
	Enplegu-eskariaren altak	90.000		90.000	112.243	90.000	120.653	130.000	101.893		
	Curriculumaren eguneratzeak	14.000		14.000	92.075	14.000	110.574	120.000	92.176		
	Enplegu-eskariaren bajak	86.500		86.500	95.347	86.500	114.352	110.000	112.027		
	Eskaintza-kop.	3.600		3.600	4.768	3.000	3.813	4.500	3.646		
Enplegu-eskaintzen kudeaketa hobetzea	8.200		8.200	5.858	8.200	5.595	5.000	4.803			
4. Nafarroako 2005-2007 Enplegu Planean ezarritako helburuak eta zuzentzarauak betezea	Lan-merkatuan buruzko datuak zehaztea										
	Eskatzaila bakoitzak orientazioa jasotzea lortzea	10.000		10.000	9.912	10.000	8.341	12.000	11.401		
	Orientazio profesionalako ekintzak	12.000		12.000	16.876	12.000	16.334	15.000	22.097		
	profesionalako ekintzak	240.000		240.000	238.821	240.000	200.724	187.200	214.609		
5. Internet bidezko erregistroetarako sarrera hobetzea	Aplikazio hau balizko erabiltzaileen artean hedatzea	96.000		96.000	57.182	96.000	35.523	37.200	27.277		
	Internet bidez jakinaraziak	144.000		144.000	181.639	144.000	165.204	150.000	187.332		
	Erabiltzaileen arreta mantendu eta hobetzea enplegu-bulegostan										
6. EURES (European Employment Services) sarea sustatzea	Foru Komunitateko eskaizailak	300		300	276	300	289	300	378		
	Europako merkatura hurbiltzea										

## II. ERANSKINA. ENPLEGU PLANARI BURUZKO TXOSTENA

III. Enplegu Plana, 2008. urtearen amaierara arte luzatu zena, amaitzean, IV. Enplegu Plana jarri zen martxan 2009-2012 aldirako.

Haren jarraipena egiterakoan, horretarako sortutako batzordeak ikusi ahal izan zuenez, ordura arte horretarako erabilitako adierazle batzuk zaharkituta geratu ziren eta beharrezkoa zen beste adierazle berri batzuk baliatzea, helburu berrietara egokitzeko.

Eguneratze hori egiteko beharrezko kontuan hartuta, batzordeak IV. Enplegu Plana aztertzeaz arduratuko zen eta jarraipena egiteko adierazleak ezarriko zituen lantaldea sortzea erabaki zuen.

2009. urtean eta 2010. urtearen erdialdera arte lan-bilera ugari egin ziren plan berri horretako adierazleak zehazteko. Horretarako, politika publikoaren ebaluazioan aditua den aholkulari baten laguntza izan zuten.

Adierazleak IV. Enplegu Planaren egiturara egokitu dira.

Adierazleak zehaztu ondoren, lantaldeak hauxe pentsatu zuen: Enplegu Planaren jarraipenean parte hartzen duten erakundeak hainbat izanik eta guztiek datuak aurkeztu behar dituztela kontuan harturik, datu horiek sartzeko tresna informatiko bat sortzea komeni zela.

Aplikazio horretan oinarrituta, zegokion protokoloa jarraitu behar zen, Nafarroako Gobernuaren segurtasun-baldintzetara egokitzeko eta eman nahi genion erabileraren arabera garatzeko.

Aplikazio informatiko horretan garrantzitsua izan zen IV. Enplegu Planak gizartean zuen eraginari buruzko informazioa zekarten datu-motak bereiztea.

Hori dela eta, funtsean bi datu-mota ezarri ziren:

a) Oinarritzko datuak: lan-merkatuko datu guztiak sartzen dira: langabeziaren, jardueraren, enpleguaren eta abarren tasak, sexuaren eta adinen arabera banakatuta, Nafarroaren, Espainiaren eta EB 27 esparruaren artean alderatuta, hala dagokion kasuetan.

b) Exekuzio-datuak: Planaren egiturari buruzkoak dira:

Etorkizunerako, ebaluatuko den Enplegu Planaren helburuen balizko desbideratzei buruzko ikuspegi zehatzagoa emanen duten estrategia-datuak eskuratzeko planteatu da.

Exekuzio-datuak txostenean jaso diren helburuen (2009-2010) arabera aurkeztu ditugu, oinarritzkoetan lan-merkatuko estatistikak jasotzen direlako.

1. helburua: Enplegu Zerbitzu Publikoa sustatzea, erantzukidetasunean oinarrituta

Horren harira, hiru datu azpimarratu behar dira:

- Bulego elektronikoan egindako eskari-zerbitzuen kopurua hirukoiztu egin da 2009tik 2010era, 2009an 7.783 zerbitzu egotetik 2010ean 26.116 zerbitzu egotera pasa delako. Hau da, erabiltzaile-kopurua 2009an 7.878 izatetik 2010ean 18.632 izatera pasatu da.

- Nafarroako Enplegu Behatokiaren agiri-funtsean sartutako azterlan eta analisi berekiak (INAFRE azterlanak) guztira 55 izan dira (2009an 26 eta 2010ean 29).

- Lanbide-orientazio eta -informazioaren arloko ekintzen kopuruari dagokionez, azterketaren bitartean 120.000 baino gehiago egin dira.

2. helburua: Enpleguaren kalitate hobierantz.

Horretarako, txosten honetako azterketan honako adierazleak azpimarratu dira:

- Emakumeen nahiz gizonen lanaldi osoko eta partzialeko kontratu mugagabeak (ohikoak eta eraldatuak) bi urte horietan zehar 24.168 izan dira.

- Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko Legea betetzen dela egiaztatzeko ikuskapen-kopurua 2009tik 2010era % 42 igo da (1.196tik 1.700era).

- Istripu-kopurua jaitsi egin da, 2009an 9.216 erregistratu baitziren eta 2010ean istripu-kopurua 8.500era jaitsi baitzen.

3. helburua: Lanbide-kualifikazioa

Enplegu Planak helburu hori bete nahi du, gure langabeen lan-merkatuan duten posizioa hobetzen laguntzeko eta gure langileei beren ibilbide profesionala hobetzen laguntzeko:

- Parte-hartzaile langabe bakoitzeko jasotako prestakuntza-orduen batez bestekoa: igo egin da 2009tik (118) 2010era (134).

- Langileen lanbide-heziketako sektore arteko planen ekintza-kopurua bi urte hauetan 2.599 izan da.

- Langile aktiboek jasotako prestakuntza-orduen kopurua 2009an 68tik 2010ean 96ra pasa da.

- Langabeentzako ikastaro-kopurua 2009an 90etik 2010ean 178ra igo da.



- Enpresen prestakuntza planen kopurua ere igo egin da, 2009an 37tik 2010ean 92ra pasata.

- Bi urteetan prestakuntza jaso duten langabeen kopurua 4.020ra igo da (2009an 696 eta 2010ean 530).

- Zentro homologatuak, bi urteetan, guztira 206 izan dira.

- Profesionaltasun ziurtagiria ematen duten ikastaroak 45 izan dira 2010ean, eta azken urte horretan homologatutako espezialitateen kopurua, berriz, 279.

- CENIFER, Energia Berriztagarrien Erreferentziako Zentro Nazionala; bertan, gai horien gaineko prestakuntza ematen da eta emandako ikastaro-kopurua 2009an 31 izatetik 2010ean 36 izatera pasa da.

- ITURRONDOKo ekintzailletza proiektuak bi urteetan 379 izan dira guztira.

- Banan-banako eta taldekako tutoretzak ITURRONDOn guztira 390 izan dira biurteko honetan.

4. helburua: Ekintzailtzaren sustapena

Txosten honetan honakoak azpimarratzen dira:

- Autonomoentzako diru-laguntzen kopurua: 2009an 226 izan ziren eta horietatik 133 emakumei eman zitzaizkien. 2010ean diru-laguntzak 235era igo dira eta horietatik 131 emakumei eman zaizkie.

- Gizarte Ekonomian sortutako lanpostuen kopurua, ANELen babesarekin, 17koa izan da 2009an eta nabarmen igo da 2010ean, 47ra.

5. helburua: Lan-merkatu kohesionatua

Talde horien bilakaera ikusteko adierazle nabarmenenak honakoak dira:

- Berdintasunaren, bateragarritasunaren eta enpleguaren arloan egindako jarduketan onuradunen kopurua: 2009an 4.854 izatetik 2010ean 8.596ra igo dira.

- Artatutako ikasle etorkinen kopurua: guztira 1.759 bi urteetan.

- Etorkinentzako prestakuntza-ikastaroen kopurua: 109 bi urteetan.

- Enplegu-zentro berezietan kontratatutako pertsona ezinduen kopurua: 1.234 2009an eta 1.272 2010ean.

- Enplegu zentro berezien kopurua: 31 bi urteetan.

- Ohiko enpresan kontratatutako ezinduen kopurua: 73 2009an eta 75 2010ean.

- GLZko parte-hartzaileen kopurua: 131 2009an eta 160 2010ean.

- Tailer-eskoletako parte-hartzaileen kopurua: 557 2009an eta 534 2010ean.

- Programa esperimentaletako parte-hartzaileen kopurua: 504 2009an eta 505 2010ean.

- Enplegu-tailerretako parte-hartzaileen kopurua: 89 2009an eta 188 2010ean.

- Laneratutako pertsonen kopurua: 191 2009an eta 218 2010ean.

6. helburua: Gizartean txertatutako enplegu-plana

Ezarritako adierazleen artean honakoak azpimarra genitzake:

- Bateragarritasunerako laguntzen onuradunen kopurua: 2009 eta 2010 artean 47.

- Nafarroan sinatutako hitzarmenen kopurua: 58 2009an eta 69 2010ean.

- Gatazka kolektiboan ondoriozko adiskidetzek eragin dieten enpresen kopurua: 29 2009an eta 27 2010ean.

- Gatazka kolektiboetako adiskidetzek eragin dieten langileen kopurua: 11.349 2009an eta 5.662 2010ean.

7. helburua: Enpresaren erantzukizun soziala eta ingurumena

Hauek azpimarratu behar ditugu:

- Enpresaren gizarte-erantzukizunaren gaineko diagnostikoa egiteko laguntza jaso duten enpresen kopurua: 2009an 95 eta 2010ean 40 (aurtengo gehieneko muga posiblea, laguntza bi kontzeptugatik eska baitzitekeen: diagnostikoetarako eta jardueraren planak egiteko).

- Jarduera-planak egiteko laguntza jaso duten enpresen kopurua: 2010ean 30. Urte horretan jarri ziren martxan kontzeptu honetarako.

Azpimarratzekoa da enpresa txiki eta ertainei beren enpresetan enpresaren gizarte-erantzukizuna sartzeko eman zaizkien laguntzak arrakastatsuak izan direla. Hori dela eta, kudeaketa-modu berri honek gizartean duen eragin handiari eta bere lehiakortasuna areagotzeko eskaintzen dituen aukerei buruz hausnartu beharra dago.

## III. ERANSKINA. LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Langabeentzako ikastaroak	Ikastaro kop.	Ikasleak/la ideko	Orduak	Ikasle kop.	Emandako zenbatekoa	Ordu kostua/ ikaslea bb	Justifikatutako zenbatekoa	Emandako orduak	Zuzeneko kostuak	Kostu lotuak	Beste kostuak	Ezeztatua	Indargabetua
Club Marketing	17	15	4.360	255	625.200	9,56	616.946	4.360	462.710	123.389	30.847	8.254	
C. Integral para F.	9	15	2.415	135	411.825	11,37	409.131	2.415	324.168	64.488	20.475	2.694	
Politeknikoa	11	15	2.430	165	328.050	9,00	208.919	1.980	170.064	38.529	326	58.381	60.750
Formactual Mu.	8	15	2.375	120	320.625	9,00	299.608		289.124	8.966	1.518	19.228	
Fund. Lab. Const.	10	15	2.350	150	317.250	9,00	311.437	2.350	249.385	61.212	840	5.813	
Peluc. y Moda	6	15	1.780	90	240.300	9,00	176.691	1.775	136.800	31.057	8.835	63.609	
E. Ense. Imag y S.	6	15	1.635	90	220.725	9,00	218.626	1.635	166.653	41.054	10.918	2.099	
Consultec	5	15	1.435	75	193.725	9,00	193.725	1.435	145.294	38.745	9.686	0	
Gurutze Gorria	5	15	1.340	75	180.900	9,00	152.490	1.335	114.368	30.498	7.625	28.410	
Formación Actual	5	15	1.315	75	177.525	9,00	168.597	1.315	163.226	4.763	607	8.928	
CENTA	5	15	985	75	132.975	9,00	92.133	765	69.262	18.264	4.607		
AIN	3	15	930	45	125.550	9,00	113.334	930	90.667	22.667	0	12.216	
CIAS (Azkoien)	4	15	885	60	119.475	9,00	115.697	885	86.813	23.139	5.745	3.778	
C. Inf. Tafalla	4	15	650	60	106.950	10,97	96.797	650	82.813	10.013	3.971	10.152	
Cuatrovientos	4	15	790	60	106.650	9,00	84.679	790	67.080	15.656	1.943	21.971	
Iruñeko Udala	3	15	690	45	105.750	10,22	51.290	690	41.063	7.716	2.511	54.460	
Salestarrak	2	15	480	30	93.600	13,00	67.041	480	50.300	13.408	3.334	26.559	
A Y D Azkoien	2	15	430	30	58.050	9,00	58.050	430	47.335	9.603	1.112	0	
SINET	2	15	385	30	51.975	9,00	48.533	385	44.414	2.000	2.119	3.442	
ANET	1	15	265	15	35.775	9,00	32.750	265	26.404	5.220	1.126	3.025	
Ramiro Mata Tuteria	1	15	260	15	35.100	9,00	21.060	260	16.570	3.437	1.053	14.040	
Col.T.Carlos III	3	15	255	45	34.425	9,00	29.558	255	22.161	5.910	1.487	4.867	
Proeduca Navarra	2	15	230	30	31.050	9,00	29.893	230	23.467	5.937	489	1.157	
Javysr	1	15	215	15	29.025	9,00	21.743	215	16.882	3.928	934	7.282	
Aut. Elkar Iruña	1	15	195	15	26.325	9,00	Ezereztua	195	0	0	0		26.325
Autoesc. Martínez	1	15	195	15	26.325	9,00	20.036	195	15.027	4.007	1.002	6.289	
Autoescuela El Puy	1	15	195	15	26.325	9,00	15.262	195	11.446	3.052	763	11.003	
Fundanel	1	15	165	15	22.275	9,00	21.309	165	15.982	4.262	1.065	966	
Guztira	123	15	29.635	1.845	4.183.725	9,41	3.675.337	26.580	2.949.476	600.921	124.939	378.622	87.075

**IV. ERANSKINA. INAFRErekiko 2010eko HITZARMENA. IKERKETA PROIEKTUAK ETA AZTERLANAK.**

Proiektuaren izena	CCOO	UGT	CEN
1 Tresna metodologikoak (enplegu eta soziologiako kontzeptuak ingelesez)	3.305		
2 Krisiaren ondorioak enpleguan. Nafarroako langabeziaren azterketa sakona	42.500		
3 Ikus-entzunezko sektorea Nafarroan. Lan-baldintzen gaineko hurbilketa	36.902		
4 Automobilgintzaren sektoreko adierazle-taularen eguneratzea	42.050		
5 Laguntza tekniko I+O sareari Nafarroan	16.971		
6 Negoziazio kolektiboaren irismena Nafarroan	43.927		
7 Lan arloko partaidetza eta produktibitatea Nafarroan	60.000		
8 Biztanleria aktiboaren prestakuntza Nafarroan	62.485		
9 Nafarroan automobilgintzaren sektorean dauden prestakuntza-beharren gaineko diagnostikoaren sektore-txostena	30.860		
10 Biztanle langileen azterketa (45 urtetik gorako pertsonak)		47.250	
11 Krisi ekonomikoaren ondorioak Nafarroan. Enplegu-erregularizazioko espedienteen azterketa		69.791	
12 30 urtetik beherako gazteen eta langabeen azterketa Nafarroan		71.154	
13 Nafarroako informazio eta orientazio profesionalerako sarearen eguneratzea		48.860	
14 Automobilgintzaren sektorea etengabe zaintzeko sistema		45.570	
15 Enplegurako prestakuntzaren plangintza Nafarroako ekipamendu ondasunen sektore industrialean		73.055	
16 Nafarroan ekintzaileak babesteko ekimenen egoeraren azterketa			12.000
17 Ekintzailetza-maila Nafarroan: Europako testuinguruko posizioa eta nazioarteko esperientziak			10.851
18 Lizarran lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko estrategia berritzaileen prestaketa			25.431
19 Merkataritza sektorean eskatutako profesionalen profilak eta laneratzea kudeatzeko tresnaren diseinua			24.000
20 Nafarroako komunikazioaren eta publizitatearen sektorearen ezaugarriak			10.000
21 Nafarroako Erdialdeko enpresa-jarduera traktore berrien partaidetzazko identifikaziorako eta definiziorako proposamena			30.000
22 Nafarroako enpresa txiki eta ertainen enpresa-estrategiak: hazkunderako eta enplegurako oztopoak			38.000
23 Adierazleen sorrera eta Nafarroako IV. Enplegu Planaren Jarraipen Planaren prestaketa (*)	4.000	4.000	6.160
24 Bioteknologiaren sektoreko enpresetan talentua sartu eta garatzeko plana			30.000
25 Akreditazio profesionalen mapa			37.500
26 Soldaten eta enpresaren lehiakortasunaren lerrokatzea			32.656
28 Sistema nazionalako aukeren eta kualifikazioen azterketa eta sustapena			15.000
29 Nafarroan garatutako aukeren identifikazioa eta ingurumenaren eta logistikaren sektoreetako enplegu-sorkuntza			15.000
30 Ekialdeko Pirinioetan enplegua eta ekonomia aldetik indarra izan dezaketzen guneen azterketa eta identifikazioa			11.000
Auditoria txostena			11.900
Guztira	343.000	359.680	309.498

(\*) Baterako lana da.

## BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZ-TUTAKO ALEGAZIOAK

**Lehenengoa.** Zazpigarren orrian Nafarroako Enplegu Zerbitzuren zereginak aipatzen dira, eta, hirugarrenean, enplegua sustatzeko jarduera zehazten da, honakoa ezarriz: “bere funtzioak baztertuta dauden edo hala egoteko arriskuan dauden edo ezintasunen bat duten pertsonen laneratzea babestearekin eta gizarte-ekonomia sustatzearekin lotuta daude.” Alegazioa: lerroalde hori berriz idatz dadila, auditoreak azalpen honetatik bidezkoa jotzen duena sartuta:

Funtzio horiek egiten direla egia den arren, jarduera ez dagoela ondo zehaztuta uste dugu, enpleguaren sustapenak bi aldagai baititu: batetik, tokiko erakunde, irabazi-asmorik gabeko entitate eta enpresen eskutik langileen kontratazioa sustatzea eta autoenplegua sustatzea, gizarte-ekonomia babestuz, baina baita autonomoek egiten dituzten inbertsioak babestuz ere; eta, bestetik, laneratzeke zailtasun gehien duten taldeei enplegua eskuratzeko aukera-berdintasuna sustatzea: ezintasunen bat duten pertsonak eta baztertuta daudenak, noski, baina baita beste talde batzuk ere, esaterako gazteak, 45 urtetik gorakoak eta luzaroan langabezian egon direnak (horien kontratazioa sustatuko da, hainbat neurri eta programaren bidez, tailer-eskolak eta enplegu-tailerrak besteak beste) edo emakumeak (bateragarritasuna sustatzeko neurrien bitartez).

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendari kudeatzailearen urriaren 30eko 2596/2012 Ebazpenaren bidez onartutako Enpleguaren Sustapen eta Aukera Berdintasun Zerbitzuaren Kalitate Planean adierazitakoaren arabera (NAO, azaroaren 9koa, 220. zenbakia), zerbitzu horren xedea enplegurako aukera edota enplegarritasunaren hobekuntza sustatzeko balio duten programak diseinatu eta betearaztea da, batez ere laneratzeke zailtasun gehien duten pertsonen begira.

**Bigarrena.** Aurrekoaren ildotik, honakoa uste dugu: orri horretan bertan, amaieran, “Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez du zuzenean enplegua sortzen, baizik eta “enplegarritasunaren” baldintzak hobetzen laguntzen du” dioenean. Alegazioa: honakoa gehitu beharko litzateke lerroalde horren lehenengo esaldian “... eta enplegua eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzea.” Era berean, lerroaldeko bigarren esaldia aldatu beharko litzateke, honela: “Hau da, neurriak ezartzen ditu herritarrek enplegua eskuratzeko erraztasunak izan ditzaten, prestakuntzaren, lanerako orientazioaren eta enplegua sustatzeko neurrien arloan.”

**Hirugarrena.** 10. orria, 5. ondorioa: Alegazioa: azken puntuan honakoa jartzea: “Landunei zuzendutakoa, 2010. urtean 8,9 milioiko exekuzioa izan duena 1.347 ikastaroetarako, Estatuko araudiaren, hots, 395/2007 Errege Dekretuaren eta TAS/718/2008 Ministro Aginduaren bidez ezarritakoari jarraiki, (ordezkaritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeek parte har dezakete ikastaro horietan). Batez beste ikasle bakoitzeko eta orduko 11,74 eurokoa da, eta ia ehuneko 60tan 13 eurokoa. Gastuak justifikatzeko aipatu estatu-araudiak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.”

**Laugarrena.** 11. orria, 9. ondorioa. Alegazioa: ondorio hau ezabatzea, okerra delako. ZIOA: landunei lehenetasunez zuzendutako prestakuntzaren eremuan, NEZeko zuzendaritza-organoak ados agertzen dira gai honetan aplikatu behar den Estatuko araudiaren hitzez hitzeko azalpenarekin (395/2007 ED eta TAS 718/2008 Agindua) eta enplegurako prestakuntza-planak arautuko dituen foru-arauekin. Zuzendaritza-organo horiek ez dira inola ere alde aurretik ados agertzen arlo honetako hitzarmenekin, fiskalizazioaren behin-behineko txostenean baieztatu den bezala. Hitzarmenen onarpena eta sinadura deialdia argitaratu ondoren gauzatzen dira, Estatuko araudiak gaitutako erakunde onuradunak norgehiagoka aritu ondoren eta organo kudeatzaileak (NEZeko Enplegurako Prestakuntza Zerbitzua) diru-laguntza ematea ebatzi ondoren.

Hitzarmen horiek sinatzea ezinbestekoa da TAS/718/2008 Aginduko 17. artikularen arabera, eta horren zeregina emandako diru-laguntza betetzeko baldintzak ezartzea da. Horretarako, Estatuko araudian eskatutakoetara egokituko dira. Horrek ez du esan nahi NEZeko zuzendaritza-organoek aurretiazko adostasuna ematen dietenik beste erakunde lankideekin egindako hitzarmenei, estatutuetan jasotakoei.

**Bosgarrena.** 12. orria, 15. puntua. Alegazioa: puntu honetan honakoa jartzea: “Egiaztatu denez, apurka-apurka “profesionaltasun-ziurtagiriak” eskuratzeko ikastaroen programazioa sustatzen ari da, Kualifikazio Profesionalen Sistema Nazionala ezartzeko finkatutako Lanbide Heziketaren politika nazionalean oinarrituta. Prestakuntza-ildo honek langileak kualifikatu eta akreditatu nahi ditu beren lan-gaitasunean, Lanbide Kualifikazioen Sistema Nazionalean oinarrituta. Ikastaro horietan prestakuntza-moduluak eta lanekoak ez diren praktikak uztartzen dira.”

**Seigarrena.** 12. orria, IV.4 atala. Alegazioa: Eraginkortasunari, eragimenari eta ekonomiari

dagokienez, 16. puntuan lehenengo alegazioan adierazitako bera kontuan hartzeko eskatzen da.

**Zazpigarrena.** 13. orria, lehenengo gomendia. Alegazioa: eskatu nahi dugu, batetik, Enplegu Politiken Urteko Planaren ebaluaziorako lantaldean kudeaketa, testuinguru eta eraginaren gaineko adierazlek lantzen ari direla kontuan hartzeko (Nafarroaren kasua jorratzen duen taldearen dokumentazioa erantsi da), eta, zehazki, honako hau lehenengo alegazioan aipatu den Kalitate Planean jasotako hobekuntza-ekintzetako bat dela aintzat hartzeko. Planeko 2. helburuko 4. hobekuntza-ekintzak, zehazki, programen eragina eta emaitzaren gaineko adierazleak egiteko ezartzen du ekintza gisa. Ekintza hori dagoeneko hasi da, Iñaki Aranek (Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioko zuzendariak) jarduera honetarako eman duen berariazko tailer baten bidez.

**Zortzigarrena.** 13. orria, bigarren gomendia. Alegazioa: ez dakigu zergatik egin den hori, argi baitago, egiaztatu denez, urtero ekintza berriak egiten direla. Etengabeko egokitzapen horren adibideak dira 2010. eta 2011. urteetako krisiaren aurkako neurriak, enpresa txiki eta ertainei 2012an langabeak kontratatzeke emandako laguntzak, 2012an gizarterako errenten eta gizarteratzeko, laneratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko laguntzen hartzaileak kontratatzeke laguntzak eta abar. Ez denez premisa batean ere oinarritzen, gomendio hori indargabeteke eskatzen dugu. Berriz ere gogorarazi behar da enplegua jarduera ekonomikoak sortzen duela eta enplegu-politika aktiboen helburua pertsonen enplegarritasuna hobetu edo areagotzea dela.

**Bederatzigarrena.** 13. orria, laugarren gomendia. Alegazioa: ez dakigu zein premisatan oinarritzen den eta honakoa da edozein kudeatzailek lortu nahi duen helburua: araudian ahalik eta gehien zehaztea gastua aitortu eta aplikatzeko irizpideak, araudia interpretatu beharra saihesteko. Ez denez premisa zehatz batean ere oinarritzen, gomendio hori ere indargabeteke eskatzen dugu.

**Hamargarrena.** 19. orrialdea, azken lerroaldea. Alegazioa: a) puntua zehaztea; izan ere, 2012an langabeei lehentasunez zuzendutako deialdian dagoeneko ez da ezartzen aurreko urteetan prestakuntzak egin dituzten zentroentzako lehentasuna. Ondorioz, 2012ko deialdian sarrerarako oztupo hau ezabatu da.

Honela aldatzea b) puntuaren amaiera: honakoa dioen tokian: "... haien aplikazio praktikoari buruzko azken erabakia auditoreak hartzen du", honakoa proposatu da: "... Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hartzen du erabakia, auditorearen,

prestakuntzako teknikarien eta teknikari juridikoen iritzia entzun ondoren, prestakuntza-zerbitzuaren proposamenaren ondoren".

**Hamaikagarrena.** 20. orria, azken aurreko lerroaldeari buruz "Estatutueta 8. artikulua arabera...". Alegazioa: lerroalde hori aldatzea, kontzeptuetan akats bat errepikatzen delako. ZIOA: laugarren alegazioan esan dugun berbera; haren arabera, "Hitzarmenen onarpena eta sinadura deialdia argitaratu ondoren gauzatzen dira, Estatuko araudiak gaitutako erakunde onuradunak norgehiagoka aritu ondoren eta organo kudeatzaileak (NEZeko Enplegurako Prestakuntza Zerbitzua) diru-laguntza ematea ebatzi ondoren"; gainera, lerrokada hau atal horretan sartzea ez da koherentea, NEZen estatutueta 8. artikuluan ezarritakoak ez baitu loturarik prestakuntza-arloarekin.

**Hamabigarrena.** 21. orria. Alegazioa: "Hasierako onarpenaren eta onetsitako aldaketa ugarien ondoren, azkenean egingen diren jarduerak honakoak dira" dioen lerroaldea aldatzea; honakoa proposatu da: "Hasierako onarpenaren eta onetsitako aldaketan ondoren, azkenean egingen diren jarduerak honakoak dira": ZIOA: ez dugu uste aldaketak ugariak direnik: 1.400 ikastaro inguru egonik logikoa da programazioan aldaketak egotea; gainera, eraginkortasun eta aukera gehiago egotea da helburua.

**Hamahirugarrena.** 22. orria, "2010 Hitzarmenaren indarraldia..." dioen lerroaldeak hau dakar, NEZek "... materiala antolatu eta Ministeriora bidaltzen duela soilik..." Baieztape hori ez da zuzena. NEZek ikastaro-hasiera guztiak ikuskatu eta baliozkotzen ditu; horien kalitatearen gaineko jarraipen-bisitak programatzen dira; ikastaroen % 30 bisitatu eta ikuskatzen dira; horien txostenak edo/eta eskaerak egiten dira; ordainketak proposatu eta kudeatzen dira; onuradunek proposatutako aldaketak onartzen dira ala ez; sektore-planetan jasotako profesionaltasun-ziurtagiridun ikastaroak ikuskatzen dira, hori guztia horiek arautzen dituen dekretuaren arabera; onuradunek aurkeztutako alegazioak aztertzen dira eta horien erantzunak ematen dira; eta abar. Gainera, honakoa adieraztean "Justifikazio hori NEZen aurkezte da 2011ko uztailean eta 2011ko urrian bidaltzen zaio Ministerioari"; ez da argi eta garbi zehazten, diru-laguntzaren justifikazio ekonomikoa arautzen duen araudiari jarraiki exekuzio-epea amaitu (uztailak 31) ondorengo hiru hilabeteetan egingen baita; ondorioz, justifikazio ekonomikoa 2011ko uztailetik urrira bitartean aurkeztu behar da, eta epe hori amaitzean, NEZek Hirualdeko Fundazioari (ez Ministerioari) bidaltzen dizkio aipatu justifikazioak. Alegazioa: lerroaldearen testua alda dadila, azaldutako gaien

arabera, batez ere NEZek “materiala antolatu soilik” egiten duela dioen iritzia.

**Hamalagarrena.** 23. orria. Alegazioa: V-4.2. Tailer-eskolak, V.4.3. Gizarte-intereseko obren kontratazioak, V.4.4. Enplegu-zentro bereziak, V.4.5. Krisiaren aurkako neurriak, V.6.1. Autonomoentzako diru-laguntzak eta V.6.2. Enplegu-zentro berezientzako diru-laguntzak enplegua sortu eta mantentzeko ataletan, guztietan dena ondo dagoela ondorioztatzen denez, berariaz hori aipatzeko eskatzen dugu, halaxe egiten baita V.6.1 eta 2 ataletan.

**Hamabosgarrena.** 28. orrian, hasieran, V.4.5 Krisiaren aurkako neurriak atalean, honakoa adierazten da: “hiru hartzaile nagusiek 2010ean emandako laguntza guztien ehuneko 77 hartzen dute”. Alegazioa: “hartzen” ordez beste kontzeptu egokiago bat jartzea eskatzen dugu: “jasotzen”.

**Hamaseigarrena.** 36. orria, 3. ondorioa. Alegazioa: ondorio horretako azken esaldia kentzea, hau dioena: “Ondorioz, praktikan, NEZek formalizatzen dituen lankidetzak-hitzarmen eta oinarrien onarpenean parte hartzen duten gizarte-solaskideak, adibidez enplegurako lanbide-heziketaren eremuan, horien onuradun ere izan ahalko dira. ZIOA: (laugarren alegazioan adierazitako bera).

**Hamazazpigarrena.** 38. orrialdea, azken puntua. Alegazioa: puntu hau ezabatzea, okerra delako. ZIOA: (laugarren alegazioan adierazitako bera).

**Hemezortzigarrena.** 44. orria. Alegazioa: azken aurreko lerroaldearen ordez honakoa jartzea:

“Azken hilabeteetan profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prestakuntza-ikastaroak egin daitezkeen sustatzen ari da, Kualifikazio Profesionalen Sistema Nazionala ezartzeko finkatutako Lanbide Heziketaren politika nazionalaren arabera. Ziurtagiri horien bidez gaitasun-titulu bat akreditatu eta eman daiteke, profesional batek arlo jakin batean izan behar dituen ezagutzak errazteko ikastaroak egin ondoren, hau da, langileak lanbide-heziketaren akreditazioa lortzen du ikastaro horiek egitean, lanekoak ez diren praktikekin batera.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 22an

Laguntza Tekniko eta Administratiboaren Zerbitzuko zuzendaria: Luis García Ortego

## **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak alegazio-idazkia aurkeztu dio Nafarroako Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostenari.

Laugarren, hamaikagarren, hamaseigarren eta hamazazpigarren alegazioetan hitzarmen jakin batzuen onarpena aipatzen da. Horren harira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutueta 8. artikulura joko du, honakoa baitio hitzez hitz:

8. artikulua. Batzorde Iraunkorraren eginkizunak:

1. Eginkizun hauek dagozkio Batzorde Iraunkorriari:

a) Aldez aurreko oniritzia ematea entitate laguntzaileekin egiten diren lankidetzak hitzarmenei.

b) Enplegu-politiken plangintzan parte hartzea eta horiek erregulatzen dituzten arauen aldeko txostenak egitea.

Eta Batzorde Iraunkorra aurreko artikuluan arautzen da:

7. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Gobernu Kontseiluaren barruan eratuko da Batzorde Iraunkorra eta honakoek osatuko dute: burua Gobernu Kontseiluko lehendakariordea izanen da eta kideak, aldiz, Administrazioako ordezkarietako kide bat, lanaren gaineko eskumena duen kontseilariak izendatua, bi kide sindikatu-erakundeen ordezkarietan eta bi kide enpresa-erakundeen ordezkarietan, 4 artikuluan ezarriak eta erakundeok izendatuak. Gobernu Kontseilurako izendutakoa arituko da idazkari-lanetan.

Era berean, zuzendari kudeatzailea joanen da bileretara, hizpidearekin baina botorik gabe.

2. Lehendakariak deialdia egin ondoren, Batzorde Iraunkorra hilean behin bilduko da normalean, eta, aparteko kasuetan, lehendakariak berak deitzen duenean, bere ekimenez edo hirualdeko ordezkariak osatzen duten alderdietakoren batek proposatuta.

3. Batzorde Iraunkorraren erabakiak hirualdeko ordezkariak osatzen duten aldeek aho batez onartu beharko dituzte.

Erabakiak behar bezala hartu direla ulertzeko, hirualdeko ordezkariak osatzen duten alderdi guztietan kideen gehiengo osoz onartu beharko dira, 4.1 artikuluko a) eta c) ataletan ezarritako ordezkarietan, eta sindikatu-erakundeen gehiengo osoz 4.1 artikuluko b) atalaren kasuan.



Aurkeztutako gainerako alegazioak azalpenak, hedapenak edo ñabardurak direla eta Zerbitzuaren ikuspuntua zehaztu arren ez dutela txostenaren funtsezko edukia aldatzen uste dugu.

Horrenbestez, alegazioak txostenari gehitu eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

---

